

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

99 positibo berri
2.951 positibo guztira*

2 hildako

90 ospitalizatuta

*Hernanin 48 Astigarragan 15

NAFARROAN

217 positibo berri
7.227 positibo guztira
4 hildako
2.015 ospitalizatuta
Sendatuak 13.540 EAE; 2.827 Naf.



«Elkarrekin, apal egin behar dugu bidea»

URUMEA
ELIZA

4-5



Mendiak zubi bihurtzen direnean

HERNANI
HISTORIA

6-7



«2,5 milioi euroko galera izatea aurreikusten dugu tokiko hedabideok»

URUMEA
TOKIKOM

15

40 urte lortu zuela

Maiatzaren 14an 40 urte beteko dira Martin Zabaleta hernaniarra Everesteko gailurrera iritsi zela, Pasang Temba sherparekin batera, hori lortzen lehenengo euskalduna bihurtuz. Ekainaren 12an omenaldi ahaztu ezina jaso zuen herritarren aldetik.

2-3

Langabetu eta familiei ere laguntzak, Beterri-Buruntzak

ASTIGARRAGA-HERNANI
LAGUNTZAK

11



Ekintza Plana, jarduera ekonomikoa suspertzeko

HERNANI
UDALA

10

Adin guztietako bizilagunak ariketa egiten jartzen ditu Javi Zarallok Mañe i Flaquerren

Soinketa eta pilateseko irakaslea da Zarallo eta dagoeneko hiru saio eman ditu larunbatetan. Gaur, 12:00etan, laugarrena gidatuko du bere balkoitik. «Sekulako poza ematen didate bizilagunek eta nahiz eta kalera irten gaitzkeen, jarraituko dugu klaseak ematen larunbatero eguerdian. Poz haundia ematen du».

HERNANI
KIROLA

9



45 egun, DJ Galasekin dantzan

«Laiztiaga eta Etxeberri arteko biziagunak ezagutzea izan da ezbehar honen gauzarik onena» dio musikariak. Aurreko aste-buruan amaitu zituen saioak.

HERNANI
MUSIKA BALKOJETAN

8

Hernaniko haurreskola

Covid-19k eragindako egoera dela eta, matrikulazio epea atzeratu egin da.

Noiz zabalduko den jakin bezain laster, aditzera emango dugu.

Edozein zalantza argitzeko: hernani.hernani@haurreskolak.eus

Sagastialdeberri 2
943 55 29 91

Adi Euskal Herria, munduko gailurretik entzun aldarria



Everesteko tontorra egiten aurrenekoa izan zen Martin Zabaleta, 12 kideko Euskal Espedizioa taldearekin.

12 kideko taldea, Euskal Espedizioa osatu zuena

Martin Zabaleta izan zen munduko gailurrera igo zen aurreneko euskalduna, baina ez zen bakarrik joan. Espedizio hura, Euskal Espedizioa,

12 mendigoizalek osatu zuten: Martinez gain, han ziren lehenago Tximist Espedizioan izandako Luis Maria Saenz de Olazagoitia Petxu, Angel Rosen,

Felipe Uriarte, Ricardo Gallardo eta Juan Ignacio Lorente, eta Ramon Arrue, Xabier Erro, Javier Garaioa, Emilio Hernando, Kike de Pablos, eta J. Urbieta Takolo.



Pasang Temba sherpak jarri zituen tontorrean, ikurriña eta Nepaleko bandera.

45 minutu, puntaren puntan

Gailurrera iristen aurrenekoa Pasang Temba izan zen, Zabaletak Kronikari 2010ean egindako elkarrizketan aitortu bazion ere kosta egin zitzaioala sherpa konbentzitzen azken metroak egiteko. Gailurrean 45 minutu egin zituzten. Tembak jarri zituen bertan ikurriña, Nepaleko bandera, eta bandera antinuklearra, eta hernaniarrak argazkia egin zion. ETaren anagrama ere jarri zuten, eta eztabaida piztu zen ondorengo egunetan, argazkiak prentsan argitaratu zirenean. Zabaletak espedizioa kideei jakinarazi zien lorpenaren berri: «Egin dugu! Gora Euskadi Askatuta! Gora Euskadi Antinuklearra!».

1980ko maiatzaren 14an zapaldu zuten Everest edo Chomolungma gailurreko tontorra, munduko altuena (8.848m), Pasang Temba sherpak eta Martin Zabaleta mendizale hernaniarrak.

HERNANI MARTIN ZABALETA

Abentura lehenago hasi zen. 1980ko maiatzaren 14an, duela 40 urte, zapaldu zuen aurreneko euskaldun batek Everest, munduko gailurrik altuena, eta hori Martin Zabaleta hernaniarra izan zen. Baina aurreneko saiakerak 1969an hasi zen antolatzen, eta 1974rako prestatu zuen igoera Tximist Espedizioak. Baina eguraldi txarra medio, ezinezkoa izan zen.

Berehala, beste espedizio bat prestatzen hasi ziren. Nepalgo Gobernuak urtean bi baimen ematen ditu, eta 1982rako lortu zuten. Baina Sobietar Batasuneko espedizio batekin trukatu, eta 1980rako prest zeuden. 1979ko azaroan materiala bidaltzen hasi ziren, eta 1980ko otsailean Nepalera abiatu ziren mendizaleak. Martxoan, Namche Bazar, Sherpa herriko hiriburuan ziren, eta martxoaren 18an Kanpamendu Nagusia jarri zuten Khumbu Glaziarraren Morrenan, 5.400 metro.

ziarraren Morrenan, 5.400 metro. Maiatzaren 7an ekin zioten Hegoaldeko Lepotik tontorrerako bideari, txandatan. Javier Garaioa eta Nin Temba tontorretik 90 metrora geratu ziren. Planteamendua aldatu, eta maiatzaren 14an Hegoaldeko Lepotik abiatu ziren 02:30ak aldera Lorente, Zabaleta eta hiru sherpa. Zabaletak eta Tembak segi zuten aurrera, eta 10:15ak inguruan iritsi ziren Hegoaldeko Tontorrera, 8.760 metro.

Azkenean, gailurra 15:30etan zapaldu zuten. Beherako bidea 16:15etan hasi zuten. Baina Temba 10 metroko paretan erori zen Hegoaldeko Tontorrean (8.700m), eta han pasa behar izan zuten gaua, zirrikitu batean, beste ezer gabe. Maiatzaren 15ean iritsi ziren III. kanpamendura, haien bila bidalitako 3 sherpek lagunduta. Bigarreneko bidean elur-jausi batek harropatu zituen ia. Maiatzaren 17an amaitu zen espedizioa. **K**



Martin Zabaleta Everestean, ikurriña eskuetan.

Aurreneko euskalduna, gorenean

1953an aurreneko Zeelanda Berriko Edmund Hillary eta Tenzing Norgay sherpak egin zuten bide beretik, Hegoaldeko tontorra zuten tontorra Martin Zabaletak

eta Pasang Tembak. Gailurra egiten aurreneko euskalduna izan zen Zabaleta; munduan 104garrena, tontorra 22garrenez konkistatu zen aldian.

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, J. Osa, M. Ramirez
de Alda eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernani Udalak



Astigarragako Udala



Ereñotzuko
Auzo Udala



GOIZUETAKO
UDALA



ARANOKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

TOKIKOM

Bikain

A

PEFC

**DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK**

«Hernanikoa ez dut behin ere ahaztuko»

Gailurra egin eta hilabetera etxean ziren. Bilboko ongietorriaren ondoren, Zabaleta besarkatu zuen Hernanik 1980ko ekainaren 12ko gauean.

Sondikako aireportura 1980ko ekainaren 12an iritsi ziren espedizioako kideak; denak, Jabier Garaioa, Kike de Pablos eta Xabier Erra izan ezik, materialaren bidalketa antolatze-ko geratu baitziren Kathmandun. Zain zeuzkaten, besteak beste, Carlos Garaikoetxea lehendakaria eta senitartekoak, 17:10etan lurra hartzean. Bilbon izan zuen segida ongietorriak, eta bertan afaltzen geratzekoak baziren ere, Martin Zabaleta Hernanira etorri zen.

Gaueko 21:00etan iritsi zen, ko-txez, senitartekoekin. Bi ordu lehenago txarangak zebiltzan kalean gora eta behera. Zinkoenera iritsi ziren kotxeak. Hainbestekoa zen jende pilaketa, ezinezkoa izan zutela Kale Nagusian gora jarraitzea, eta, beraz, Martin Zabaletak oinez egin zuen Plazarainoko bidea, txar-rangek eta herritarrek lagunduta.

Ekintza eta Urtza dantza tal-deek osatutako arkupetik sartu zen Plazan. Txistulariek jotako Agurra dantzatu zioten segidan, eta Musika Bandak *Eusko Gudariak* jo zuen, herritarren kantuak lagunduta. Incansables txaranga ere bertan zen, eta Martin Zabaletak gogoan izan zuen hilabete lehenago hil zuten Zapa, txarangako kidea.

Udaletxean, Telesforo Monzon idazle eta politikariak berak egin zion harrera, momentu hartan Espainiako Gobernua haren atzetik bazebilen ere. Ondoren, orduko alkate Juan Jose Uriak Hernaniko Urrezko Ikurra jarri zion, eta go-raipatu egin zuen, «borrokalari bezala, herri honen eskubideen erreibindakzioan egindako lanagatik». Zabaletak berak ere egin nahi izan zituen hitz batzuk, baina ez zen gain izan. Zabaletak

Kronikari aitortu zion 2010ean, «bikain ospatu» zutela; «zer esanik ez, gero Hernanikoa nolakoa izan zen. Ez dut behin ere ahaztuko, eta beti nere bihotzean izango dira egun horiek».

2010ean, balentriaren 30garren urteurrenean, omenaldia egin nahi izan zitzaizen bai Zabaleta eta baita Zapari ere, Preludioan. Euriagatik bertan behera geratu zen, baina udaletxean interpretatu zen Joxan Goikoetxea hernaniarrak sortutako *Namaste, Chamo Longmu* obra. Himalaia eta Euskal Herriko doinu eta erritualak nahastutako lau pieza izan ziren, Ana Remiro eta Xabier Segurak dantzatuak, Tomas Garmendiaren ahotsean, eta Mikel Laskurain eta Pello Goelloren aktore-lan eta atrezzoarekin. Audioa berreskuratu du Goikoetxeak; entzuteko: kronika.eus.



Txarangek eta jendetzak lagunduta igo zuen Kale Nagusia, Zabaletak.



Telesforo Monzon bera gerturatu zen Hernanira, Zabaletaren ongietorri.



30garren urteurreneko omenaldian, Zabaleta eta Zaparen senitartekoak.



Jendetza bildu zen Plazan Martin Zabaleta omentzeko, 1980ko ekainaren 12an.

egín

JUEVES, 10 DE MAYO 1980
Litu-Oleto, Sordal, Aizcora.
Ingeniero: Artale, Sordal, Aizcora, Pizcueta.
Fotografía: S. S. Sordal, Aizcora.
Diseño: S. S. Sordal, Aizcora.
Vicio: 0042 0000.
Control de calidad y eficiencia por:

Director en funciones: JOSÉ FELIX AZURMENDI

Precio del ejemplar: 25 pesetas / 2 francos

La ikurriña ondea ya en el Everest

El hernaniarra Martin Zabaleta alcanzó ayer, en la compañía de un sherpa, la cumbre más alta de la Tierra.

Euzkadi es el decimocuarto país que conquistó el Everest, el monte que con 8.848 metros de altitud es el techo del mundo. A las tres y media de la tarde en Nepal, sede de la montaña en Euzkadi, del día de ayer 14 de mayo de 1980, el montañero hernaniarra Martin Zabaleta y el sherpa Pasang Tempa dieron el último paso que les permitía poner la cima, en la que permanecieron durante quince minutos. Quedaban atrás las trece horas de ascenso desde que abandonaron el último campamento, en la compañía de Juan Ignacio Lorente, el jefe de la expedición vasca y otro sherpa llamado Ang Nima, que debieron abandonar su intento a medio camino.

Con esta de ayer, el Everest ha sido conquistado en 22 ocasiones y Zabaleta hace el número 104 de los hombres que han podido gozar, desde los 30 metros cuadrados de la cumbre, la increíble perspectiva que desde allí se divisa.

El éxito del montañismo, del deporte vasco en general, se verá seguramente enriquecido en los próximos días, pues las referencias procedentes de Nepal hablan de los preparativos de una nueva cordada, en la que parece figurar Felipe Uriarte, que en las próximas horas iniciará un nuevo ascenso a la cumbre.

La noticia provocó una explosión de júbilo en todo Euzkadi, que ha vivido con interés y pasión las incidencias de esta aventura que tiene un especial significado. Una ikurriña ondea ya en lo más alto de la Tierra. Una ikurriña que no es precisamente la oficial, la que el entonces presidente del Consejo General Vasco entregó a los expedicionarios en aquella entrañable despedida de Bilbao, hace ya unos meses.

Martin Zabaleta y su sherpa han conquistado para Euzkadi el Everest por la ruta Sur, la misma que utilizó el mítico montañero inglés Edmund Hillary, el hombre que el 31 de mayo de 1953 alcanzó por vez primera la cima.

(Cuadernillo central)

El sherpa Pasang Tempa, presidente del Parlamento vasco, anunció ayer que la libertad de Iñaki Pikabea, portavoz del Gobierno vasco, se había conseguido.

Al parecer, la decisión adoptada se basa en el informe recibido de la Comisión de Derechos Humanos del Pab. Vasco, que había sido solicitado.

“Los contenidos” de esta segunda nota —señaló el presidente del Parlamento vasco— son los mismos que la realidad. Las modificaciones para la

Suárez podría abandonar La Moncloa por razones de seguridad

La sede de la Presidencia del Consejo de Ministros, en la zona de Cuadernos, puede ser cambiada de localización por las razones de seguridad.

El Parlamento vasco pedirá la libertad de Iñaki Pikabea

Juan José Pujana, portavoz del Parlamento vasco, anunció ayer que la libertad de Iñaki Pikabea, portavoz del Gobierno vasco, se había conseguido.

Zabaletak gailurra zapaldu ondorengo Egin egunkariaren azala.

Berri freskoak, bihotzak epeltzen

Orduan ez zegoen egungo teknologiarik, eta teletipo bidez iritsi zen mezua: Everesteko gailurrera iristea lortu zuen Martin Zabaleta hernaniarrak. Hainbat egunkariak, Egin egunkariak bezala, berria jaso zuten hurrengo egunean, maiatzaren 15ean, osteguna. Orduan, hurrengo egunetan Felipe Ugartek beste saiakera bat egingo zela aurreratu zuten, baina, azkenean, maiatzaren 17an espedizioarekin bukatzea erabaki zuten. Izan ere, maiatzaren 15ean iritsi ziren beherakoan III. kanpamendura, eta II. kanpamendurako bidean ia harrapatu zituen Lothseko paretan izandako elur-jausiak.



Martin Zabaleta, amarekin (Monika Larburu, 2019ko abenduaren 23an zendua)

Jaka eta errosarioa, EMMOAn

Gailurrean, aurreko espedizioak utzitakoa hartzen du hurrengo mendizaleak. Zabaletak poloniarrek utzitako errosarioa ekarri zuen, eta ama Monikari oparitu zion. Honek Euskal

Mendizaleatasunaren Museoari eman zion 2018ko udan. Igoeran erabilitako jaka ere Fundazioari eman zion Zabaletak iaz. Ama, Monika Larburu iaz hil zen 95 urterekin.

«Apal-apal ikasi eta elkarrekin egin behar dugu bidea, bidelagun izanez»

Urumea Haranako Pastoral Barrutiak galdeketa bat egin zuen pasa den urtean, eta pandemiak sortutako krisiaren aurrean, hausnarketara eraman dute Jose Luis Aperribai parrokoa, jasotako erantzunek eta Koronabirusak ekarri dituen aldaketek.

URUMEA ELIZA

Urumea Harana Pastoral Barrutian (Astigarraga, Hernani eta Urnieta), duela 3-4 bat urte gogoeta saioak egin izan dira. Iazko kurtso bukaeran, zein norabidetan jo behar zuen galdetu zuen elizak: «ez bakarrik geure buruari, baizik jendeari galdetu nahi genion zer dioen elizaz, jakinik, sekularizazio giroa areagotzen ari dela, eta eliza erakunde bezala gizarteak baztertuta eta uxatua izaten ari dela zerbaitetan», dio Jose Luis Aperribai, Hernaniko parrokoa.

Horrela, Hernaniko etxeetara inkesta bat zabaldu zuen Urumea Harana Pastoral Barrutiak, jabetuta aldaketa haundiak ematen ari direla mundu zabalera eta gure herriko historian, gizartearen eta kulturaren. Horren jakitun, Hernaniko elizak nabari du «kristau komunitate pluralista eta etorkizunera irekia izatera behartuta dagoela. Behartuta, bide berriak bilatzera, Jesusen Ebanjelioari eta gure herriari leialagoak izateko» dio Aperribai.

Hausnarketa hau, gainera, pandemia batek harrapatu du, COVID-19ak edo Koronabirusak sortutakoa, konfinamendura eraman gaituena. Horrela izanda, Aperribai uste du aro aldaketa baten aurrean gaudela, «gure bizitzako alderdi guztietan eragiten duena. Garai historiko baten amaiera eta beste berri baten hasieran gaude».

«Kontzilio Vatikanoko IIan, behartsuenen aldeko apustua egin zen»

Horri lotuz, Jose Luis Aperribai elizaren ildoak gogortu nahi du, zein den gaur egun eta zertan oinarritzen den. «Kontzilio Vatikanoko IIak munduari leihoak eta ateak zabalduz, bere-bere egin nahi izan zituen garaiko gizateriaren nahiak eta ezinak, larrialdi eta itxaropenak, eta behartsuenen aldeko apustua egin. Garaiko seinale eta deiadarretan Jesus Jaunaren Izpirituak zer esan nahi zion aditzeko jarrrera irekia hartu zuen».

Hala ere, hori horrela izanik, «ibilbide bat, motel bada ere, egin izan da gure artean ere, baina asko dago egiteko», azpimarratu du. 55 urte beteko dira aurretik, Kontzilio Vatikanoko II ospatu zela. Momentu honetan bizitzen



Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parroki eliza.

ari garen larrialdi egorerarekin lotuta, «eliza itxita dago, Apostoluak etxe batean itxita egon ziren bezala, Jesus hil eta gero», dio Aperribai. Hala diote ebanjelioek: «Beldurrez, ateak itxita, etxe batean zeuden; Jesus berpiztuarekin aurkitu ondoren, ir-

«Ibilbide bat, motel bada ere, egin izan da gure artean ere, baina asko dago egiteko»

ten egin ziren kanpora. Orain elizak eman lezakeen irudia da kaiola batean bezala sartuta dagoela, aparteko mundo batean».

COVID-19ak sortutako krisi honek zer ekarriko duen inork jakin ez arren, Jose Luis Aperribai parrokoa uste du zerbait ikasi beharra dugula. «Apal-apal, gure arteko harremanak zaindu eta landu egin behar ditugu. Eta batez ere, beharrean aurkituko den jende asko ikusiko dugu, tamalez, eta zertan lagundu beharra ere. Norberegandik gabe, nolabait, batak bestearekin laguntzea ezinbestekoa izango da. Alderdi honetatik, borondate oneko desioak dira. Jabetu beharko genuke, goazen martxa honetan zentzugabekeriak eta harrokeriak ibiltzeak zulora garamatzala».

«Eliza zerbitzatzeko dago, bestela ez du ezertarako balio» Aperribai adierazten duenez, «Kontzilioak leihoak ireki bazituen, batez ere garaiko seinaleak, garaiko deiak, deiadarrak nolabait ere ikusteko eta entzuteko izan zen. Entzun eta ikusi,

«Apostoluak irten egiten dira kanpora, eta ez dira kaiola barruan geratzen»

ez ikuspegi moralista negatibo batetik erantzuteko, begi onez, ikuspegi positibotik, begiratzeko baizik. Eliza egon baldin badago, ebanjelioaren zerbitzura jarduteko da, eta ez beretzat bizitzeko. Euskal Herrian ere egon zen Jaques Galliotek, Evreuxeko gotzainak, zioen bezala, *una iglesia que no sirve, no sirve para nada*. Eliza zerbitzatzeko dago, bestela ez du ezertarako balio. Jesus bizirik badago, bere izenean eta inguruan biltzen den komunitateak bizia izan behar du, eta noski, kanpora aterako den Eliza bat».

Iazko ekainean egindako galdeketa jaso ziren erantzunetan, nabarmentzekoa da non eta zertan ikusi nahiko luketen eliza sartuta. «Gaurko Aita Santuak ere hori azpimarratzen du,

irteten ari den Eliza, jendearengandik, sufrituengandik, behartsuengandik gertu egoteko... Nolabait konfinatuta egon da eliza, eta berak ere oso kuestionatua aterata beharko luke, gaur egungo egoerari atxikitzeko».

Galdeketa jakin nahi zena

«Gure gaur egungo egoerarekin lotuz, nolabait konfinatuta egon da eliza»

hauze zen azken batean: *Zer ari zaigu esaten Jainkoa, ez zeru goitik, baizik eta jendearen ahotik?* «Hori galdetu nahi genion ez bakarrik eliztarrei, baina herritarrei ere bai. Nola ikusten gintuzten, nola ikusi nahi gaituzten eta zertan sartuta. Nota eskasa jaso dugu, nola ikusten gaituzten galderaren erantzunetan. Elkarte edo Jainkoaren herri bezala, konpartitzen dakiena, herriarengandik gertu dagoena; hori nota onik ez dago. Fededunak hazten lagunduko duena, nota bajua. Izan liteke ez dutelako Eliza ezagutzen, edo bost axola zaielako, edo ezer gutxi espero dutelako».

«Egoera larri honetan eliza ari da lanean»

Aita Santuak egin dituen ager-

penen ildotik ari da lanean Urumeako Pastoral Barrutia. «Ixilik baina ekinean aritu da. Egoera larriaren daudenei, lehen gaizki zeudenei Caritaseko zerbitzutik ari gatzatzeko laguntzen. Aurrez aurre ez, baina telefono bidezko zerbitzua martxan egon da; laguntzak ere bai. Egoera honetan ezustean harrapatu eta murgildu den jende berria ere atenditu eta lagundu dugu. Ez dago aipatu beharrik. Etxera deika ari zaizkigunak, kalean daudenak, zaindu behar dira. Gizarte-zerbitzuekin elkarlanean, laguntzen eta arazoak bideratzen saiatzen gara, nabarmendu nahi gabe, horixe baita egin behar duguna, ez besterik».

«Behar duenari lagundu zaio gure esku genituen baliabideen arabera», dio Jose Luis apaizak. «Aipamen berezia egin nahiko nieke, pandemiaren biktima gogoangarri hauei: isolatuta daudenak, gaixo egon eta bisitaezinak direnak, eta batez ere etxeko eta herritarren afektuzko agur-adierazpenik gabe hil direnak. Guk ere hori bizi izan dugu, tokatu zait gaixoa hiltzerian egon, beregana joan eta oneratu direnak. Baina, gogorra da oso familikoentzat beren saminean senide maiteak agurtu ezina. Egutetara enteratu izana hila dela halako, gutxienez telefonoz hitz egin... Hilerrian azken-agurrerakoan ere oso baldintzatuta ibili behar izan dugu; baina, tar-

«Honek geldiarazi egin behar du martxa hau, sistema ekonomiko hau, kontsumismo erraldoi hau»

«Jon Sobrino jesuitak El Salvadorren esan zigun Mikel Goenagari eta niri, guri dagokigula kristau bezala, eliza bezala, kristo elkarte bezala apal-apal bidea egitea, herritarrekin batera zuzenbidea eginez eta jaunaren aurrean», dio Aperribaik.

URUMEA ELIZA

Koronabirusaren krisiak zer pentsatua eman du, nola egin dion kalte gizarteari. Horren aurrean, Jose Luis Aperribaik dio: «borondate onez, honek geldiarazi egin behar du martxa hau, sistema ekonomiko hau eta kontsumismo erraldoi hau, bakoitza bere zilborrera begira bizitzea. Hemen ere jarrera batzuk agertu dira txantxetan bezala hartu dutenak, hil behar badugu honegatik izan edo

beste edozergatik izan... Elizaren egoerarekin lotuta, uste dut elizak beste modu batera behar duela. El Salvadorren, Marak eta akabatzeke baimena dago, konfinamenduan».

Han orain dela 30 urte izan zen Jose Luis Aperribai, Mikel Goenagarekin batera. «Bera Sorabillan eta ni Zizurkilen geunden, eta El Salvadorrera abiatu ginen, hamabi urteko gerraren ondoren. Bake akordio batzuk egin zituzten, eta bai gerrilakoak eta bai armadakoak, ne-

kazari gisako kooperatiba batzuetan zeuden eratuta. Jende asko ere maisu bezala ikusi genuen, baita futbol partidu bat ere, inguruko kooperatibetatik eta lurraldeetatik joandakoe-kin osatutako bi taldeen artean. Alkandora edo elastikoetan, bi taldeek *Askatasuna* hitza zuten jarrita soinean. Arrasatetik bidalitakoak ziren. Handik ateratakoan oso gaizki hitz egiten zuten kooperatibistek, beraien liderrengatik. Eskutik utzita geratzen ziren liderrak edo politi-

koak hiriburuan zeuden bitartean, eta zer esanik ez, hango elizaren aldetik».

Bueltakoan UCAn (Universidad Católica Americana) sartu ziren, Ellakuria, beste lau jesuita, etxeakoandrea bat eta bere alaba hil zituzten Unibertsitatean. «Hildako baten anaia zegoen, jesuita, kapillan; eta han ikusi genuen Jon Sobrino, gure artean oso ezaguna den jesuita. Jaiotzez Bartzelonakoa eta jatorriz bilbotarra. Pentsatzen zen martirien odolak El Salvadorreko herria

piztu egingo zuela. Galdetu nion jendea ez zegoela oso gustora, bake akordioa egin zela, baina Marak zeudela; hiriburu inguruak ikusten genituen eta desastre bat zen. Gerrillak eta ejerzi- toak norbere armekin segitzen zuten. *Zer uste duzu horri buruz?*, galdetu nion, eta berak hauxe esan zidan, oraingo egoerarekin lotzeko: *guri dagokigu kristau bezala, eliza bezala, kristo elkarte bezala apal-apal bidea egitea, herritarrekin batera zuzenbidea eginez, eta Jaunaren aurrean.*

teak gordeta ere, afektiboki ger- tu egoten saiatu gara».

«Batak bestearentzat izan behar dugu berri on bat»

Jose Luis Aperribaik dio, ebanjelioak izan behar duela gaur egungo galderei eta premiei erantzuteko. «Arazoei erantzunak ematen jardun baino, Elizak badu esku artean berri on bat, ez hitzez esateko bakarrik. Batak bestearentzat izan behar dugu berri on bat. Gertatu zaigunak balio beharko liguke jabetzeko, pixka bat bada ere, horrela ezin dugula jarraitu; gelditu eta begira jarrita ikasi beharko genuke. Eta galdetu, martxa honetan nora goaz? Hau eromena da. Ikasi beharko genuke zerbait».

Inkestaren hirugarren galde- ra, etorkizunari begira egiten da: *Zertan ikusiko nahiko lukete hemengo eliza?* Erantzunetan ikusi daiteke, laguntzen ikusi nahi dutela eliza. «Akonpainamendu egiten, ez bakarrik ekonomikoa; konfiantza, elkartasuna, aholkularitza eta guzti hori».

«Bizitza hartu behar dugu eskuetan, eta gure historia. Historian ez dugu honelakorik ezagutu. Gerra garaia ezagutu zutenei galdetu eta ez dute horrelakorik ezagutu. Gerra garaian ere, baserrira edo babeslekura joaten ziren momentu jakin batean, bonbardaketa zetorrenean, eta bueltan itzuli. Honek apaldu egin beharko gintuzke, eta batez ere, batak besteari gehiago begiratzera eraman».

«Toke haundi eta historiko bat hartu dugu»

Ezberdinekin ere bai. Hori azpimarratzen du jende askok inkestan. «Gauden egoeran, aro

«Guri dagokigu kristau bezala, eliza bezala, kristau elkarte bezala, apal-apal bidea egitea, herritarrekin batera zuzenbidea eginez eta Jaunaren aurrean»

aldaketa bat egon da. Bizitzen ari garen hau errematea izan da, bizitzaz daukagun filosofia eta bizimodu kontsumista, indibidualista eta galderarik gabekoarentzat. Zentzua erabili dezagun, eta ikasi dezagun behingoz. Toke haundi eta historiko bat hartu dugu».

Hala ere, Aperribaik dio posible dela lehengora itzultzea. «Litekeena da, normaltasunera itzultzen garenean, lehengo lepotik burua izatea. Frantziako Sarkozy 2008ko krisian bezala, Macronek orain ere esan du oinarri etiko batzuk jarri behar direla, kontsentsu batekin. Bestela ez dagoela eusterik, eraikuntza ekonomikoa bera ere».

«Mamu hau» ezustean etorri dela, dio parrokoak, kontuak eskatzen. «Gaingitu egiten gaitu. Zer ikasirik badugu eskarmentu onerako. Beldurra izango dugu egoera honetatik ateratzean, kontu eta prebentzio haundia- gorekin ibiliko gara. Ondo da. Baina bestelako zainketak egin beharko ditugu».

«Oraingoz ez gara hasiko»

Elizkizunak oraingoz ez dira martxan jarriko Urumea Hara- na Pastoral Barrutian. «Mezua



Jose Luis Aperribai parrokoa, elizkizun batean meza eskaintzen.

bidaliko dugu. Esaten da lehenengo fasean heren batekin hasi daitezkeela elizkizunak. Gu ez gara hasiko, adineko jendeari kargarik ez ezartzeko. Inportantea da beraien osasuna eta denen osasunerako atsedena hartzea, bakean, luze joango baita hau oraindik». Alde horretatik, kontzientzia aldetik, «lasai eta bakean» egoteko mezua helarazi du Aperribaik.

«Ez bakarrik bakoitza zaindu, elkar zaindu behar dugu, bata bestea estimatzen dugula- ko». Berak dio, etxean lasai egon

behar dela, kontrakorik agin- tzen den arte. «Gero, erdia sartu ahalko da elizkizunetan, ondo badoaz gauzak. Plus bat dugu fu- neralekin, orain arte joan zaiz- kigun herritarren alde. Egunak jarriko ditugu asteburuetan, baina hori ere neurtuta egin beharko dugu. Banan-banan ez dira egingo, multzoka, hiruna- ka edo egin beharko dira. Ikusi beharko da nola kudeatu, zer iri- tzi eman eta zer esaten diguten».

Alderdi horretatik, deseska- latzearen epeak kanpotik ezarri- ta datoz, eta apaizak zain daude.

«Zain, zer arau jartzen diren, eta bete egin beharko dira. Norberak ere oso barneratua dauka hori; beldurra, atzera buelta bat izan ez dezagun. Neurriak hartuko ditugu. Osasun aldetik zer iriz- pide dauden, zer neurri hartzen diren eta horren esanetara egon behar dugu». Eliza pandemiaren aurrean eta hau gestionatzeko eran ixilik egon izanaren ingur- uan, parrokoak nabarmendu du, ez dela garaia nahasmendu gehiago piztekoa, baizik eta adi- tuagoak direnen irizpideak gor- de eta bat egitekoa». **K**

«Mendietan eta Pirinioetan, muga leku horiek ez dira mugak, baizik eta zubiak»

Sarean doan ikusi daiteke Beñat Iturrioz hernaniarrak, Bira produkzioak etxetik, zuzendutako 'Sans Nom' dokumentala. Argitara ateratzen du Bigarren Mundu Gerran aliatuei laguntzeko Euskal Pirinioetan barrena egiten zen ezkutuko ihes sare bat; «hain zen sekretua, ez zitzaiola egokitu izenik».

HERNANI HISTORIA

Apirilaren 25az geroztik Kanal-dude telebistan ikusi daiteke *Sans Nom* dokumentala, eta astelehenetik aurrera Bira produkzioak etxearen Vimeo eta YouTube kanaletan ere ikusi ahal izango da. «Orain arte euskerazko bertsioa zabaldu dugu, baina pentsatzen dugu Belgikan frantsesez kontsumituko dutela errazago». Hain zuzen, euskeraz, gaztelania, frantsesa eta ingelesa nahasten ditu, Euskal Pirinioetako Mendibe herrixkan kokatzen den istorio honek nazioarte mailako garrantzia baitu.

Bertatik pasatzen zen Zero Sarearen zati bat Bigarren Mundu Gerran, bereziki, belgiarrak, naziek okupatutako lurraldeetatik ihes egin eta Europa aliatura eramaten laguntzen zituena. Mendibeko zerrategia erabili zuten bi belgiar eta errusiar bat, tokiko artzain eta mugalari baten laguntzarekin, tapaki gisa.

Argitaratu berri duzen dokumentala 2018ko udan grabatu zenuten. Nola iritsi zineten Mendibera?

Aspaldidanik ezagutzen dugu elkar Joe eta biok. Comete Sarearekin lanean ibiliak dira. Ohitura haundia dago Europa osoan zehar horrelako sareetan barrena berriro ibiltzeko. Hemen, ezagunena, Comete da. Baina Joek aipatu zigun bazeagoela beste sare bat, Zero Sarea, Bruselan hasi eta naziengandik ihesean zebilen jendea Europa aliatura eramaten zuena. Aipatu zigun 2018ko ekainean Men-



Joe Linehan eta Beñat Iturrioz, 'Sans Nom' dokumentalaren bultzatzailea eta egilea.

dibetik Orbaizetarako ibilbidea egitekoak zirela, Zero Sare horren zati txiki bat hartzen zuena, eta garai hartan parte hartu zutenen seme-alaba, ilobak eta senideak etorriko zirela. Grabatzeko aukera polita izango zenez, eta saltsatan sartzeko daukagun zaletasunagatik, joan egin ginen.

Eta bideo labur bat izango zena, dokumental bihurtu zen...

Hasiera batean pentsatzen genuen bideo laburpen bat egitea, motza, bost bat minutukoa. Baina ikusita zein pertsona zeuden hor, erabaki genuen elkarriketa zabalagoak egitea, eta 35 minutuko dokumental laburra egin dugu. Azkenean, uste baino luzeagoa, baina nahi baino laburragoa. Izan ere, badago hor informazio pila bat, egiteko dokumental serio bat, ordu eta erdikoa.

Zero sarearen zati hori, Mendibeko zerrategia erdigunean duena, izenik gabea, 'Sans Nom' da. Zergatik?

Guk eman diogu izen hori. Comete Sareak ingelesak salbatzen zituen bezala, Zero Sareak belgiarrak salbatzen zituen. Belgikan hasi eta Frantzia zeharkatzen zuen, eta bazeuden sare batzuk pasatzen zirenak Katalu-

«Figura garrantzitsua izan zen Jean edo Manex Sarotxar, bertako artzaina, Lehenengo eta Bigarren Mundu Gerretako heroia izan zena. Mugalari lanak egiten zituen»

nia aldera, handik Lisboara eta gero, Europa aliatura, Ingalaterrara. Baina, zati bat, aldiz, pasatzen zen gure Euskal Pirinio inguru horretatik. Berez, sareak Zero izena dauka, baina sareak zati txikiak ditu, eta zati txiki honek ez zeukan izenik; hain zen sekretua sarea, ez zitzaio- la egokitu izenik zati konkretu horri. Mendibetik hasi eta Iratiko Oihana erabiliz, Orbaizetara artekoa zen. Izan ere, mendian, eta Pirinioetan, muga leku horiek ez dira mugak, baizik eta zubiak. Han bazegoen zerrategi abandonatu bat, eta sare honen zati hau martxan jartzeaz arduratu zirenek, Charles Schepens doktoreak, Perot jauna bezala ezaguna, eta Anselme Vernieuwek jarri zuten martxan, Cyrille Pomerantzeff errusiarra sartu zelako erresistentzian eta be-

rak egin zuelako zerrategiaren erosketa. Hirurek jarri zuten martxan zerrategia, eta zerrategi horrek egiten zituen funtzio normalak: egurra moztu Iratiko Oihanean, ekarri eta saldu.

Eta, era berean, tapaki gisa funtzionatu...

Funtzionatzen zuen fabrika bat zen. Eta egurra saltzen zieten, baita alemaniarrei ere. Beraz, espia bikoitzaren jokoa egiten zuten alemaniarrei ere salduz, itxura emanez alemaniar kolaborazionistak zirela. Baina, azpitik, ekartzen zuten jendea zerrategira lanera, egiten zituzten pare bat aste, eta gero, ihes egiten zuten Nafarroa aldera, Europa aliatura, edo erabiltzen zituzten soldadu belgiarrak pasatzeko Europa aliatura. Hor, figura garrantzitsua izan zen Jean edo Manex Sarotxar, bertako artzaina, Lehenengo eta Bigarren Mundu Gerretako heroia izan zena. Mugalari lanak egiten zituen Pirinioetako alde horretan. Mendiko txoko guztiak ezagutzen zituenenez, arduratzen zen jende hau hartu eta alde batetik bestera pasatzeaz, naziek ikusi gabe, eta, baita ere, frankistek ikusi gabe!

Dokumentalean bertan egiten da galdera: zergatik ote da istorio hau ezezaguna?


«Espia bikoitzaren jokoa egiten zuten [egurra] alemaniarrei ere salduz, itxura emanez alemaniar kolaborazionistak zirela»

Nik ere ez neukan horren berri. Guk ezagutzen dugu, normalean, historiaren zati hau baina kontrako norantzan: Euskal Herrian beti aztertu da Gerra Zibilaren ondoren jendea nola joaten zen kanpora, edo alemaniarren kontra borrokatzera, edo deportatuak izaten zirela... Beti, hemendik, Frankismotik alde egiten. Eta kasu hau da, justu kontrakoa, jendea etortzen zen hona, eta ezezaguna da, hegoaldean behintzat. Gainera, kasualitatez ezagutu zen istorioa. Horrela gertatzen da askotan. Horrelako historia pasarteak deskubritzen dira kasualitatez, norbaitek hitz egin duelako beste norbaitekin eta ateratzen duelako gaia. Albalan eraikitzen ari diren barkua ere kasualitatez aurkitu zuten. Dokumentalean agertzen den Meg Ostrum historialari kanadiarrak idatzi zuen liburu bat sare honi buruz, *Le chirurgien et le berger* (Zirujaua eta artzaina) eta bertan dago informazio guztia.

Dena den, testigu bizi bat ere topatu zenuten, Beñat Urrutia. Bai. Ibilaldira etorri zen Isabel Urrutia, Mendibekoa, eta bere osaba da Beñat Urrutia, dokumentalean agertzen dena. Eraikusten du beste alde humano hori. Egia esan, hori dauka dokumentalak: badauka, alde batetik, alderdi historikoa, Meg Ostrum historialariak kontatzen duena; bestetik, nolabaiteko historia mitifikatua eta pertsonalagoa, protagonisten seme-alaba eta ilobek kontatua; eta bestetik, Beñatena, bertako testigu batena. Tristeki, orain bi hilabete inguru joan zaigu.

Hainbeste material egonda, bigarren zati bat egiteko aukeran pentsatu duzue?

Badago materiala, bai. Ikertu eta sakondu dezakezu nahi duzun guztia. Adibidea da, Megen liburua. Ikaragarritzko azterketa egina dago. Baina dokumentala egiteko baliabideak behar dituzu: denbora eta dirua. Eta, ez dagoenean, horixe. Egin dugu



Mendibeko zerrategia.



Zero Sareko eta Sans Nom zatiko ekintzaileetako batzuk. Ezk-esk: Vernieuwe (1), Sarotxar (2), William Ugeux (3), Oleg Pomerantzeff (4) eta Schepens (6)

gure ekarpen xumea, gure denbora inbertituz, baina asmorik ez daukagu zerbait sakonagoa egiteko. Hala ere, uste dugu horrela funtzionatzen duela. Dokumental labur bat da, informazio asko dago, eta gantxo bezala balio du, jendearen arreta erakartzeko. Eta, era berean,

omenaldia ere bada, jende horri, istorio hori ezkutuan geratu ez dadin. Espero dut hemen ikustea gain, Belgikan, Frantzian eta Ameriketara ere ikusiko dela, han ere errekonozimendua izan dezan jende horrek, nahiz eta nork bere herrialdean baduen. Hemen, aldiz, iruditzen zait ez

dela hainbesteko lanketa egin garai horri buruz.

Zabaldutadain jarri duzue, hain justu, dokumentala doan ikusgai?

Lau gizon horiek altruistak izan ziren. 2019an bukatua genuen dokumentala, eta erakutsi ge-

nien senide eta parte hartu zutenei. Asmoa zen, ezagunagoa egin zedin, zinema jaialdi batzuetara aurkeztea, gero zabaltzeko aukera ematen dutelako, helburua zelako jendeak historia ezagutzea. Baina, azkenean, zain egon gara askotan, epeak luzeak izaten direlako, eta, gero,

Koronabirusagatik jaialdi asko atzeratu edo bertan behera geratu dira. Gainera, gure planaren barruan zegoen bestela ere aurtengo ibilbidearen aurretik libre jartzea, doan. Doan jaso dugu guk istorioa. Gure memoria historikoaren alde egiten dugun ekarpen txiki bat da. **K**

«Claire Schepensek berriro egin zuen 5 urterekin egindako ibilbidea»

Euskal Pirinioak Askatasun Bideak elkarteko kidea da Joe Linehan, aspaldi hernaniartutako irlandarra. Bigarren Mundu Gerrako ihes sareen berreskurapenean egiten dute lan, eta urtero, ibilbide bat egiten dute.

HERNANI EPAB

Comete Sarea ezaguna da Hernanin. Bigarren Mundu Gerran naziengandik ihes egiteko aliatuek erabilitako sare klandestinoetako bat da, eta bertan mugalari lanetan aritu zen Florentino Goikoetxea Beobide hernaniarra, Altzuetako semea. Baina ez da sare bakarra. «Askoz gehiago zeuden», dio Joe Linehan, Euskal Pirinioak Askatasun Bideak elkarteko kideak. Horiek berreskuratzeko lanean aritzen dira. «Bazeuden gehiago hemen, Gipuzkoan, eta baita Nafarroan ere. Aragoi inguruan ere bai, gutxi, eta Katalunian dezente. Hemen, Comete bakarrik izan zen. Guk beste sareetako ibilbideak ere berreskuratu nahi genituzke, baina klandestinoak ziren. Beraz, ikerketa dezente egin behar dugu».

Beñat Iturriozek Girona inguruko baten berri izan zuela aipatzen du. «Sare horietako bat pasatzen da bertatik, eta plaka jarrita dago, azalpenekin. Egin da memoria historikoarekiko lanketa. Hemen, ez hainbeste. Ez da egin lanketa haundirik, ez euskal deportatuen inguruan, ez garai horren inguruan. Do-

kumentalean bizpahiru aipatu ditugu, ikusteko nola funtzionatzen zuen Europako mapak».

Astoa, ama, eta seme-alabak

Ihes sare klandestino horietako bat berreskuratze aldera antolatutak zuten 2018an Mendibetik Orbaizetarako ibilbidea. «Ia inork ez zuen ezagutzen historia zati hori!», dio Linehanek. «Gerra ostean memoria historikoa gutxi landu zen. Mendibeko zerrategia itxita zegoen, eta tokiko jendeak ahaztua zuen. Gogoratu ere ez zuten egin nahi. Kasualitatea izan zen Meg Ostrum historialaria oporretan bertara joan izana, eta istorioa kontatu zion apaiz batekin topo egin izana. Ikertu, eta liburua ateraz zuen».

Eta EPAB elkarteak, ibilbidea berregin. Ez nolanahiko gonbidatuekin, gainera. «Claire Schepens, Charles Schepensen alaba etorri zen, 85 urterekin. Berriro egin zuen bost urterekin egin zuen ibilbidea. Orduan, ama eta anaiarekin pasa zen Donibanetik, Alduden barrera, Elizondora. Asto batekin egin zuten bidea, tokiko artzainak lagunduta. Clairek aitortu zi-

gun zeukan pena zela, ez zekiela nor zen artzain hura, eskerrak emateko. 1943ko urrian egin zuten. Ekaitzak jo zuen, eta anaiak, izututa, oihu egiten zuten. Zorionez, ez alemaniarrek ez guardia zibilak ez ziren konturatu».

Mendiriz Mendirekin, emakumeen historian barrena

Hain zuzen, ibilbide zehatz hori ere berreskuratu nahi dute. «Duela bi igande egitekoak ginen Aldudetik Elizondorako bidea, Mendiriz Mendirekin. Urtero egiten dugu hernaniarrekin ibilbideren bat, errekonozimendu gisa, apirila edo maiatza aldera. Eta gero, benetak mendi martxa egiten da udan, atzerriko parte-hartzaileekin. Gonbidatu nahi genuen Claire bera, baina aurtun zaila izango da».

Hurrengo urterako gordeko dute ideia, hala ere. «Emakumeen historia are gehiago ezkutatzen da, isiltzen da. Egingo dugu».

«Alemaniarrek ez genituen maite»

Dokumentalean ikusi daitez-

ke ihes sare horien ibilbide luzeak. Europa osoa zeharkatu, eta Frankoren diktadurapean zegoen Espainiara iristen ziren iheslariak. Bide arriskutsuegiak zirela pentsa liteke, baina ez zegoen besterik. «Bide errazagorik baldin bazegoen, bijilantzia gehiago zegoen. Hemen, adibidez, Nazioarteko Zubia (Hendaia eta Irun artean) pasatzea ezinezkoa zen. Alemaniar, karabinero eta guardia zibilak zeuden. Hain zuzen, 1943an kontrol asko zegoen Bidasoan eta Enderlatzan, eta beste bide batzuk bilatu behar izan zituzten, urrunago. Askok, Nafarroan: Iratin, Alduden, Elizondon, Baztanen, Dantxarinean...».

Iheslariak, gainera, ez zuten bide osoa zertan egin, Iturriozek esanetan. «Batzuk zati bat bakarrik egiten zuten. Adibidez, Mendibetik Orbaizetara egiten zuten asko, ingurukoak ziren. Laguntzen zieten hegoaldera pasatzen, bestela, alemaniar fabriketara lanera bidaltzen zituztelako. Izan ere, Frantzia Alemania naziak okupatua zegoen. Baina izan zitezkeen baita ere judutarrak, soldadu aliatuak, soldadu belgikarrak... Bai pertsonak, eta baita dokumentuak ere. Bide sekundarioetatik joaten ziren, ahalik eta modu ezkutuenean. Egongo ziren pasaporte faltsuarekin hegazkina hartu zezaketanak, baina ezin

zuenak, lurretik egin behar zuten bidea! Trenean, bizikletaz, oinez... Modu klandestinoan pasatzeko ahalik eta modu ezkutuenean».

Lan horiek egitera alemaniarren fabriketara joan behar izan zuten, adibidez, dokumentalean agertzen den zuzeneko testigu bakarraren, Beñat Urrutiaren anaiak. «Lan derrigorluak egitera bidali zituzten», Iturriozek argitu bezala. Linehanek pasarte hori azpimarratzen du. «Tokiko ironiarekin esaten du dokumentalean. Ingelesekin edo gaztelaniaz ez da gauza bera. Guk [alemaniarrek] ez genituen maite!».

Filosofu judutarraren atzetik

Koronabirusaren eraginez dena airean geratu bada ere, hurrengo urterako planekin aurrera jarraitzen du EPAB elkarteak. Claire Schepensekin bere ibilbidea berreskuratzeaz gain, judutar filosofo baten ihes bidea ere berregin nahi dute. «Katalunia iparraldean dago bidea. Azkenean, bere buruaz beste egin behar izan zuen hark. Oso istorio hunkigarria da. Ibilbidea 14 km-takoa da, eta seinalizatuta dago. Hurrengo urtean egingo dugu».

Berreskuratze lanak ez du etenik. Iturrioz ere ados dago. «Historian beti dago non bilatu, non arakatu, eta zer berreskuratu».

«Gertatu den ezbehar honen gauzarik onena izan da, nire bizilagunak ezagutu izana»

la konfinamenduaren hasieratik, 45 egunez eskaini ditu musika saioak Alex Galas edo DJ Galasek, Laiztiaga eta Etxeberri auzoen artean.

HERNANI MUSIKA BALKOJETAN

Noiz hasi zinen etxeko balkoitik musika saioak eskaintzen? Eta nolatan?

Telebistan ikusi nuen, Italian mutil bat ari zela musika jartzen balkoitik, bizilagunentzat. Eta nik ere probatzea erabaki nuen. Konfinamenduaren laugarren edo bosgarren egunean izan zen hori. Abesti pare bat jartzen hasi nintzen: Mikel Laboaren *Txoria txori* aurrena, eta gero beste bat 'patxanga'koa. Eta horrela aritu ginen astebate. Baina ikusten genuen bizilagunak animatu egiten zirela, eta egunero egitea erabaki genuen, gero eta denbora gehiago, eta azkenean, jarri genuen hitzordua: egunero ordu erdi, 20:30etatik 21:00etara. Eta horrela aritu gara 45 egunez, joan den igandera arte. Ordu horretan paseatzera edo kirola egitera ateratzeko aukera dagoenez, igandekoa azkeneko saioa izango zela esan nien bizilagunei.

Nolakoa izan da ordu erdi hori, egunero?

Batez ere, haurrengatik egin dut. Nik bi seme-alaba dauzkat, eta ordu erdi hori sekulakoa izan da beraientzat. Gozatu egiten zuten, dantzatzeko, kantatzeko... Eta bizilagunak ere animatu egiten direla ikusita, poza ematen dizu. Dantza egiten zuten balkoietan, argiak ere jartzen genituen... Nire *Facebook* orrialdea zein zen esan nien, eta askok idatzi didate: batzuek eskerrak emateko, eta beste batzuek halako abestia jartzea eskatzeko, edo urtebetetzea zuen norbaiti abesti bat eskaintzeko. Eta hori asko eskertzen da. Hasieran ikusi izan banu, jendea ez zela animatzen, utzi egingo nuen.

Haurrentzako bi abestirekin hasten genuen saioa beti, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoenak, edo antzekoak. Ondoren, adinekoei zuzendutako abestiren bat jartzen genuen, Rafaela Carrarenak edo estilo horretakoak. Gero *patxanga* eta *reggaeton* pixka bat; eta bukatzeko pare bat abesti *trance*, niri gustatzen zaidan musika. Baina auzoan gazte asko daudenez, beraiek ere oso pozik.

Hola Don Pepito, hola Don Jose eta tankerakoak ere jartzen nituen. Musikaren bolumena

jaitsi, eta denak oihuka beraien balkoitik, adin guztietakoak. Sekulakoa izan da. Eta joan den larunbatean, jendeak paseatzera ateratzeko aukera zeukanez, batzuk kalean gelditzen ziren dantzatzeko. Pentsatzen nuen, azkenean deituko zidatela errita egiteko!

Gainera, argiak eta kea ere erabili dituzu...

Bai bai. Kontua da nik intxaleak jarri eta apar festak egiten ditudala herrietako zein eskoletako festetan, horretan egiten dut lan. Eta erabaki nun altabozak, argiak eta ke makina ekartzea, pixka bat girotzeko. Eta bizilagunek, Gabonetako argiak atera zituzten balkoira!

Bestelako ekintzarik ere egin duzue, ezta?

Bai, bi asteburutan bingoan aritu gara, larunbat eta igande arratsaldetan, 18:30etatik 19:00etara. Eta bizilagunek gauzak ematen zituzten, sari bezala jartzeko: batek esparrago lata bat, besteak pasta kaxa bat... Pike pixka bat sortu da, eta oso ondo pasa dugu. Aplikazio bat deskargatu nuen, kartoiak lortu eta bizilagunei bidaltzeko; eta aplikazioak berak ateratzen zituen zenbakiak ere. Bozgorailuetatik esaten nituen zenbakiak, eta jendeak oihuka kantatzen zuen linea edo bingo. Saririk ez bazegoen, fidatzen ginen; baina bestela, kartoi zenbakia eskatzen genuen, konprobatzeko! Eta sarituei, portalean edo uzten genien saria. Batez ere adinekoentzat egin genuen bingoarena, eta jende askok hartu du parte. Etxean inpresorarik ez zutenei, beste bizilagunok eraman dizkiegu nolabait, jokatu ahal izateko.

Egindakoa eskertzeko, opariak egin eta kartelak jarri dizkizute. Ilusioa egingo zizun...

Oso polita izan da. Azkeneko musika saioan esan nuen, gertatu den ezbehar honen gauzarik onena izan dela, nire bizilagunak ezagutu izana. Kalean elkar agurtzen genuen, baina elkar ezagutu ez. Honen ondorioz, gehiago hitz egiten hasi gara. Bukaeran tronpetarekin abesti bat eskaini zidan bizilagun batek, eta gero gainerakoak nire izena oihukatzen hasi ziren. Oso hunkigarria izan zen. Eskerrak



Alex Galas, bere etxeko balkoian, Laiztiaga eta Etxeberriko auzotarrentzat musika jartzen.

emateko kartelak ere jarri zizkidaten balkoietan, eta gauza pila bat oparitu dizkidate, eskertzeko egun guzti hauetan musika jarri izana. Eta igandean bertan, adineko emakume bat kalean paseatzen ari zela, galdetu zidan ea ni ote nintzen musika jartzen zuena, eta esan zidan: *ez dago dirurik munduan, ordaintzeko egun hauetan egin duzuna*. Sekulakoa poza eman zidan. Gainera, ni oso sentikorra naiz adineko jendearekin, betidanik bizi izan bainaiz amonarekin.

Balkoitik balkoira hitz egiten dugu bizilagunok orain, eta komentatu dugu, hau dena bukatzen denean, geratu beharko dugula, kafe bat hartzeko behintzat.

Ni, gainera, ez naiz hemen goa; Basaurikoa naiz. Eta noski, Hernanin ez nuen inor ezagutzen; horretarako balio izan dit honek.

Noiz etorri zinen Hernanira bizitzera?

Hiru urte daramazkit Hernanin. Nire bikotekidea donostiarra da, eta hona etorri ginen bizitzera. Aurretik ezagutzen nuen herria, puzgarriekin eta apar festarekin etorri izan naiz eta. Are gehiago, hona bizitzera mugitu baino urtebete lehenago, hiru eskoletako festetan egon nintzen.

Kontzertuak ere ematen dituzu DJ bezala, ezta?

Disko jartzaile izatea da nire *hobby*. Lemoako NON, Debako Txitxarro edota Oiartzungo Itzela diskoteketan aritutakoa naiz, bertako disko jartzaile bezala. Eta astebururo neuzkan emanaldiak. Ingalaterran eta Frantzia ere asko aritu naiz. Baina gero, seme-alabak izan nitue-

nean, utzi egin nuen pixka bat. Orain, tarteka eskaintzen dut emanaldiren bat. Eta hori aprobetxatu dut egun hauetan Hernanin musika jartzeko.

Zer dela eta hasi zinen disko jartzaile bezala?

NON diskotekara joaten nintzen, festara. Eta gero, hango harreman publikoetako langile bezala hasi nintzen. Orduan, disko jartzaile batzuk hasi zitzaizkidan musika jartzen erakusten, eta ez nintzen gaizki moldatzen. Horretan hasi nintzen orduan, eta ez naiz batere gaizki ibili.

Haiek erakutsitakoaz gain, nola prestatu zinen, disko jartzaile izateko?

Binilo asko erosi nituen, eta musika ekipo bat. Eta orduak eta orduak eman nituen praktikatzeko. Nire kasa aritu nintzen, eta diskoteketako disko jartzaileei eskatzen nien gauzaren bat erakutsi edo aholkuren bat emateko.

Eskaini dituzun emanaldien artean, zein daukazazu gogoan?

Disko jartzaile bezala, denek egiten dizute ilusioa. Txikitan pentsatzen nuen, gustatuko litzaidakela DJ izan eta halako diskotekan aritzea; eta ia denetan aritu naiz. Ingalaterran emanaldiak eskaintzeak ere ilusioa egin dit, eta lautan joan naiz hara; Frantziara ere askotan joan naiz.

Biarritzen eskaini zenuen azkenekoa, osasun alarma egoeraren aurretik. Nola gogoratzen duzu?

Astebate lehenago eskaini nuen hura, bai. Oso polita izan zen. Orain ez nabilenez lehen bezala, %100ean disko jartzaile gisa,

emanaldiren bat eskaintzen dudanean, aspaldi ikusi ez dudan jendearekin egoten naiz, eta oso oroitzapen onak ekartzen dizkidate. Orain, eskaera asko jaso arren, bi edo hiru hilean behin eskaini dezaket emanaldiren bat.

Beste emanaldirik bazeneukan aurreikusita orain?

Hilabete hauetan ez, baina abuzturako neukan lotuta emanaldi bat Ingalaterran, eta airean dago, oraindik ez baitakigu zer gertatuko den.

Puzgarriekin ere ez duzue eskaririk izango orain...

Hala da. Eskoletako festa guztiak bertan behera geratu dira, eta herrietako festa pila bat ere bai. Ez dakit irailean zer bait salbatu ahal izango dugun, baina nik denboraldia galdutzat ematen dut. Anaia eta biok gabiltza horretan, eta orain mantentzen lanak egiten ari gara bakarrik, materiala garbitzen eta txukuntzen: konpondu, margotu... Gurekin daukagun langileari ERTE bat aplikatu behar izan diogu, diru-sarrerarik ez daukagulako batere.

Auzotarrek, behintzat, eskatu dizute festetan jotzeko, edo hilero saioen bat eskaintzeko...

Bai bai. Etcheberriko festak laster izan behar ziren, eta bizilagunek komentatu didate, ea jaien larunbatean musika jarri dezakedan balkoitik. Ikusiko dugu... Espero dut beharrik ez izatea, berriro konfinamendurik arintzeko; baina birusak berriro indarra hartuko balu, ez zait ezer kostatzen musika jartzea. Gustora egingo nuke. **K**

«Adin guztietako bizilagunak animatzen dira ariketekin, bakoitza bere erritmoan»

Soinketa eta pilateseko irakaslea da Javi Zarallo, Hernaniko Pilates Zentroan, eta Lasarte-Oria eta Pasai Donibaneko kiroldegietan. Aurrez aurreko soinketa klaseak, baina, Mañe i Flaquer plazako bizilagunei ematen dizkie orain, konfinamenduan, balkoitik balkoira.

HERNANI JAVI ZARALLO

Soinketa klaseak ematen dituzu larunbatetan, balkoitik. Nolatan ideia?

Balkoitik balkoira elkartzen gara bizilagunak, hemen inguruan. Hizketan aritzen gara, eta bermuta ere egiten dugu igandeetan, 13:00etan. Eta horrelakoetan, proposamenak ateratzen dira. Aurreko batean bingoa antolatu zuen bizilagun batek, eta ni soinketako eta pilateseko instruktorea naizenez, proposatu nuen klaseren bat ematea, nahi bazuten. Pozik hartu zuten, eta horrelaxe hasi ginen. Dagoeneko hiru larunbatetan egin ditugu saioak, eguerdiko 12:00etan hasita.

«Dagoeneko atera gaitezke kalera, kirola egitera; baina hala ere, jarraituko dugu klaseak ematen. Hitzordu finkoa daukagu bizilagunok, larunbat eguerdiko»

Nolako klaseak izaten dira?

Musika jartzen dut balkoian, eta ariketak egiten ditut, bizilagunek ikusi eta egiteko. Ordubete pasatzeko saioak izaten dira. Beroketa egiten dugu aurrena, atal nagusia ondoren, eta luzaketak, bukatzeko.

Atal nagusia, normalean hiru ordu laurdenekoa izaten da. Egun bakoitzean, atal ezberdinak lantzen ditugu. Beti egiten dugu ariketa fisiko pixka bat, cardio delakoa. Eta ondoren, batzuetan lantzen ditugu besoak, beste batzuetan hankak, edo abdominalak... Eta etxean dauzkagun gauzak erabiltzen ditugu. Aurreko batean, esne brikak erabili genituen besoak lantzeko. Beste batean, erratzaren makila erabili genuen. Sukaldeko rodilloa ere erabili dugu. Eta lanketa orokorra egiten ari gara, gorputzaren mugit-

kortasun osoa. Koordinazioa eta oreka ere lantzen dugu. Eta atal nagusia bukatzeko, beti sartzen diet zirkuitu bat, tabata famatu horietakoa; lau minutuko hiru edo lau saio; jendea nola dagoen arabera.

Eta bukatzen dugu luzaketekin. Orokorrak izaten dira, baina atalen bat gehiago landu badugu, gehiago bideratzen ditugu luzaketak atal horietara, baita ere.

Klaseak kiroldegian edo balkoian eman, oso ezberdina izango da, ezta?

Erabat ezberdina da (barrez)! Kiroldegian zaudenean, gertuago zaude, eta ariketa bakoitzarekin, zuzendu egiten diezu ikasleei. Hemen esaten diet, lasai egiteko, nik ezin dizkiedalako posturak zuzendu. Ariketak azaltzen dizkiet, baina ezin naiz gerturatu esateko belauna pixka bat aurrerago edo atzerago mugitzeko, besoa modu batera edo bestera jartzeko... Horregatik, progresiboki egiten dugu, eta saiatzzen naiz ariketa errazak egiten, inork minik ez hartzeko. Ariketa egiten dugu, baina ondo pasatzea ere bada helburua, gustora egotea.

Adin guztietako jarraitzaileak dauzkazu, gainera... Poza emango dizu, ezta?

20 bizilagun inguru animatzen dira, eta adin guztietakoak izaten dira, bai. Bakoitza bere erritmoan eta neurrian. Niri sekulako poza ematen didate. Adibidez, badago emakume bat, menpekotasuna daukana eta zaintzailearekin dagoena; eta beti ateratzen da, bere gurpildun aulkiarekin, ahal duen heinean ariketak egitera. 80 urteko bikote bat ere badaukagu, eta nola mugitzen diren! Harrituta geratzen naiz, daukaten energiarekin! Eta umeren bat ere animatzen da. Bakoitza bere erritmoan, eta denak gustora.

Orain dagoeneko atera gaiteske kalera, baina hala ere, jarraitzen dugu klaseak ematen. Ez dakigu noiz arte iraungo duen honek. Baina momentuz, hitzordu finkoa daukagu bizila-



Javi Zarallo, baloi batekin ariketak egiten, etxeko balkoian. Bertatik ematen dizkie soinketa klaseak, bizilagunei.

gunok, larunbat eguerdiko.

Bizilagunen artean harremana egiteko ere balio izan dizue?

Horretarako ere balio izan du. Ez genuen elkar ezagutzen, edo bistaz bakarrik, baina orain balkoitik balkoira elkartzen gara, igandeetan adibidez, bermuta egitera. Batzuk moztarotuta ere bai, eta bakoitza bere posterekin. Musika jartzen dugu, eta dantza pixka bat ere egiten dugu. Ondo pasatzen dugu.

Zertan lagundu dezake, egun hauetan ariketa pixka bat egiteak?

Ordu asko ari gara pasatzen etxean. Eta horrek suposatzen du, mugikortasuna mugatua daukagula. Ariketa egiteak laguntzen digu aktiboago mantentzen, orokorrean. Eta gero, nolako ariketak egiten dituzun arabera, atal batzuk landuko dituzu. Hori guztia, alde fisikotik. Baina horrez gain, animoa hobetzen ere laguntzen digu, autotestima landuz, bizirik gaudela erakusten baitigu. Hobeto senti-

«Sekulako poza ematen didate bizilagunek. Badago emakume bat menpekotasuna duena, eta larunbatero ateratzen da, bere gurpildun aulkiarekin, ahal duen heinean ariketak egitera»

tzen gara gure buruarekin, ikusita gai garela gauzak egiteko. Gainera, elkarrekin egiten baditugu, talde sentimendua ere lantzen da, eta erakusten digu ez gaudela bakarrik; denak gaudela berdin, gutxi gorabehera. Taldeko motibazioa lantzen da.

Pertsona aktiboa izango zara. Nola daramakizu konfinamendua?

Lasarte-Oriako kiroldegiarekin lanean jarraitzen dut, eta etxe-

tik ari gara. Ez da gauza bera, noski, eta kosta egiten da, baina saiatzzen naiz moldatzen. Nik bideoak egin behar ditut, kiroldegiko ikastaroetako ikasleentzat. Klaseak antolatu eta prestatzen ditut aurrena, ondoren grabatu, bideoa editatu eta musika jarri. Eta kiroldegiko arduradunari bidaltzen diogu, ikasleei helarazteko. Horrela ematen dizkiegu klaseak, grabatuta.

Eta gainerakoan, etxean egiten ditugu ariketak. Bizikleta estatikoa badaukagu, eta ni instruktorea izanda, tresna batzuk ere badauzkat: banda elastikoak, uztaiak... Familia osoak egiten dugu bizikleta pixka bat, eta eguna antolatu behar dugu. Goizean bizikleta pixka bat, gero lana... Eta orain, dagoeneko atera gaiteskeenez, aprobetxatzen dugu kirola egiteko. Lagunekin bideo-deiak egiteko ere hartzen dugu tarteren bat...

Azkenerako, ez digu ematen egunak! Lehortuta iristen gara egunaren bukaerara! Ez gara aspertzten, eta aktibo mantentzen gara. **K**

«Bi milioitik gorako inpaktua duen Ekintza Plana», martxan

Tokiko kontsumoa bultzatzera 700.000 euro arteko bonoak bideratuko dira, eta jarduera ekonomikoa suspertzera, 600.000 euro. Herritarrentzat zergak ere atzeratu edo eten egingo dira.

HERNANI UDALA

Covid-19aren eraginez sortutako alarma egoera kudeatzeko Ekin-tza Plana jarri zuen martxan Udalak «konfinamendua ezarri zen aurreneko egunetik», Xabier Lertxundi alkateak atzoko prentsaurrekoan azaldu bezala. Aurrena, birusaren hedapena eus-teko faseko neurriak hartu ziren, «berehalakoak», eta orain, «ber-riak hartutako neurriak jarriko dira martxan».

Hala azaldu zuten atzo tele-matikoki egindako prentsaurrekoan, alderdi politiko guztietako ordezkariak. Izan ere, alkateak azpimarratu zuen «Ekintza Plana elkarlanaren emaitza» dela. «Es-kerrak eman nahi dizkiet gobernu taldeko kideei, lehenengo lerroan lanean ari diren udal langileei eta alderdi guztiei, adostasunagatik; politikarien ardura da adostasunak bilatzea horrelako egoeretan».

Osasuna eta komunitatea

Planak lau helburu eta lehentasun izan dituela azaldu zuen: osasuna lehenestea, eta horretarako, birusaren hedapena geratzeko Udalaren esku zegoen guztia egi-tea; egoera honek sortutako krisi sozialak eragindako herritar zaur-garrienei erantzutea; Hernanik berezkoa duen komunitate izaera indartzea; eta zaintza krisiari ere-mu publikotik erantzuna ematea.

Orain arte hartutako hainbat neurriren laburpena egin zuen al-



Ekintza Plana osatzeko Udal talde guztien elkarlana azpimarratu zuen alkateak.

kateak. Batetik, osasuna lehenetsi eta telelana antolatu da. Zerbitzu batzuk bertan behera utzi dira, eta beste batzuk moldatu edo indar-tu; kaleen desinfektazioa, honda-kinen bilketa, udaltzainen lana... Era berean, adinekoen egoitzan, klinika laguntzaile eta erizainen kontratazio berriak egin dira, eta Osakidetari eskaera egin zaio medikua dedikazio osoan aritu dadin. Bestalde, «orain arte ez ze-goen materiala erosi du Udalak: EPlak, trajeak, maskarak... behar gehien zegoen kolektiboetara bi-deratzeko».

Gainera, «herriko eragileekin elkarlana inportantea» izan dela azpimarratu zuen Lertxundik, eta horrela, elikagaiak banatu, adineko herritarrei jarraipena egin, ba-karkako diru-laguntzen partidak haunditu edota erroldarik gabeko pertsonen bermatu zaie oinarritzko beharrei erantzuteko sistemarako sarrera, besteak beste.

Funtsezkoak ez diren aktibitateen kasuan, egokitu egin dira, eta «irizpide bera erabili da funtzionario eta kontratatutako lan-gileekin; soldatak bermatu dira».

Miloi eta erdiko laguntzak, jarduera ekonomikorako

Hemendik aurrera, berriz, berrak-tibatze faseko laguntzak emango dira, eta orain arteko inbertsioa kontuan hartu gabe, miloi eta erdi bideratuko dira. «Guztira, ekonomikoki udaletxearentzat bi milioitik gorako inpaktua duen Ekintza Plana da».

Besteak beste, 600.000 euro bideratuko dira jarduera ekono-mikoa suspertzeko, alarma egoe-raren ondorioz itxi duten enpre-sei, ohikoa baino %40a gutxiago fakturatu dutenei, eta kontzilia-zioagatik itxi behar izan dutenei laguntzeko. Hondakin eta ur ta-sak ez dira kobratuko edo murriz-tu egingo dira, ostalaritzan aforo mugak iraun bitartean terraza ta-sarik ez da kobratuko, eta zuzene-ko diru-laguntzak ere izango dira.

Tokiko kontsumoa bultzatze-ko, berriz, 700.000 euro arteko bonoak martxan jartzeko modua aztertzen ari da Udala Berriak el-kartearekin. «Neurri hau hainbat hilabetetan hartuko da, helburua baita herritarren kontsumo ohitu-ra aldatzea, herrian kontsumitza indartzeko. Herritarrek bonoaren %30 ordainduko dute; Udalak %70».

Herritarrentzat ere, fiskalitate malgua ezarriko da; ordainketak zatikatzeko, interesik gabe, eskae-rak egin daitezke: bilketa@hernani.eus edo 943 33 70 45 (10:00-14:00). Eman ez diren ikastaroetako ta-sak ere itzuliko dira.

Guztiak «udal aurrekontuan inpaktu haundia» izango duela onartu zuen alkateak, eta «hori aztertzen» ari direla. Aldundiko funtsetik ere datozen bi urteetan %20-25 gutxiago jasotzea espero da. «Kalkulatu dugu 5 milioi gu-txiago izango ditugula, eta aurrei-kusi gabeko inbertsioak. Ahal den neurrian aurrekontuari eusten saiatuko gara. Baina moldatu egin beharko da». **K**

Bost posturekin, azoka gaur

HERNANI BEHEMENDI AZOKA

Behar diren segurtasun neurri guztiak hartuta, Behemendi Azoka jarriko da gaur berrir, Plaza Berrin, 09:00etatik 14:00etara. Bost postu jarriko dira: Goiburu pateak, Errenteriako Aparola baserria, Landarbaso, Mahala eta Mañeko gozoena. Hernaniko Zabalo-enea baserriak jakinarazi du dagoeneko produktuak bukatu zaizkiola, baina laster itzuliko dela.

Agurra bihar, Lizeagan

HERNANI MARITXU BALKOI

Prest dago Lizeaga auzoko Maritxu Balkoi taldea, agurrerako. Plan berezia prestatu dute biharko, horretarako. Bihar, eguerdiko 13:00ean jarri dute hitzordua, Madalena plazan, eta pintxo-lehia-keta egingo dute. Vermuta, brindisa eta musika ere izango dira, noski, eta, aurreratu dutenez, *Pobre de mi* berezia... Pintxo prestatu eta dotore-dotore aurkeztu beharko da selfi batean, argazkia maritxubalkoi@gmail.com helbidera bidalita, izenarekin eta osa-gaiekin, bihar eguerdia baino lehen. Gero, *Maritxu balkoi* lepoko zapiarekin elkartuko dira balkoietan, agurrerako.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JUAN CUESTA OSSORIO

Atzo hil zen Hernanin, 71 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Emaztea: Antonia; seme-alabak: Eva eta Urko, Laura, Sergio, Ruben eta Esther; bilobak: Ianire, Maddi, Iker eta Ane eta gainerako ahaideak.

Familiak, jasotako doluminak eskertzen ditu eta alarma egoera honetan, jakinarazten dizue, bere senidea agurtzeko ekintza denak, senitatean izango direla.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 9an

JUAN CUESTA OSSORIO

Besarkada bat eta muxu bat, familiari.

URKOREN FAMILIA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 9an

JUAN CUESTA OSSORIO

RUBEN 'POLLO'-REN KOADRILA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 9an

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tfnua.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani



HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Neurriak egokitzen jarraitzen du Ertzaintzak, egoera berria medio

Besteak beste, eraikinetako obra lanak egitea ahalbidetu da, eta ibilgailuen konponketa eta mantentze lanetarako tailerrak ireki daitezke.

URUMEA ERTZAINZA

Konfinamendu egoeratik ateratzeko deseskalatzea hasi den aste honetan, egoera berrira egokitze-ko neurriak zein diren gogorarazi du beste behin Ertzaintzak, eta lehendik ezarrita dauden irizpideak errespetatzearen garrantzia azpimarratu du.

Merkataritza-jarduera eta antzekoen alorrean, eraikinetan obra lanak ahalbidetu direla gogorarazi du, eta nekazaritzako elikagaien establezimendu eta kooperatibak ireki daitezkeela.

Pertsonen joan-etorriari dagokien, merkataritza lokal txikitara edota ileapaindegietara joateko baimenak badira orain. Horrez gain, Ertzaintzak gogorarazi ditu aire librean jarduera fisikoa egiteko edota hurrekin ateratzeko irizpideak zein diren: 14 urtetik gorakoak 06:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 23:00etara atera daitezke; 70 urtetik gorakoak eta mendeko-



Tailerrak ere irekita daude, ileapaindegia eta merkataritza jarduera txikiak bezala.

tasunen bat dutenak 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara; eta 14 urtetik beherakoak 12:00etatik 19:00etara, gehienez, ordubetez; gainontzekoek ez dute ordu mugarik, baina egunean behin bakarrik atera daitezke. Hala ere, kirol-jarduera profesionala eta federatua egiten dutenek, egunean bitan egin ahal izango dute kirola aire librean. Bestalde, irteera horietan maskotak atera daitezke, «beti ere, udal ordenantzak errespetatuz, osasun eta higiene neurriak gordez eta jende gehiegi ez dabilela zainduz».

Ibilgailu pribatuak edo garraio publikoak erabiltzeari dagokionez, berriz, Ertzaintzak azpimarratu du 9 plaza arteko ibilgailuetan ilarako pertsona bakarra joan daitekeela, diagonalean, eta aurpegiko maskara erabili beharrik gabe. Baina ilara berean bi pertsona joanez gero, maskara derrigorrezkoa izango da. Garraio publikoan, berriz, derrigorrezkoa da maskarak erabiltzea, eta gidariaren atzeko eserlekua beti hutsik utzi behar da, eta dauden eserlekuen erdiak baino gehiago ezin dira erabili. **K**

Langabetu eta familiei ere, aholkularitza

Helburua da herritarrek enpleguari eta diru-laguntzei dagokienez dauzkaten zalantzak argitzen laguntzea.

ASTIGARRAGA-HERNANI LAGUNTZAK

Koronabirusari aurre egiteko ezarritako konfinamenduak sortu dituen egoeren aurrean, hainbat laguntza bideratzen ari da Beterri-Buruntzako Udalek osatutako tokiko garapenerako zerbitzua. Orain, pertsona, langabetu eta familientzako aholkularitza zerbitzua jarri da martxan.

Zerbitzua jasotzeko, galdetegia Bi kontsulta mota egiteko aukera dago, eta helburua da herritarrek enplegu arloan eta diru-laguntzen inguruan dituzten kontsul-

ta espezifikoak erantzuna eman eta egoera bakoitzaren arabera jarraitu beharreko prozedurei buruzko informazioa ematea.

Kontsultetako bat enplegu orientazioari buruz egin daiteke: langabezia edo DSBE/RGI eskaera, ERTEi buruzko kontsultak... Beste kontsulta mota, diru-laguntza eta neurriei buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko izango da: pertsona eta familiei zuzendutako laguntza eta gizarte-laguntzen ingurukoa.

Mota bateko edo besteko informazioa jasotzeko, www.beterriburuntza.eus webgunean sartu behar da, eta galdetegia bete.

Etxeko langileentzako ere bai

Enpresa eta autonomoentzako aholkularitza zerbitzuak ere martxan jarraitzen du, eta etxeko langileentzako laguntza berezia ere jarri da martxan. **K**



Establezimenduko bi maskara banatuko dira, gehienez.

Maskara eta gela banatuko zaizkie merkatariei

Astelehenetik aurrera eskuratu ahal izango dira Berriak elkarteak, 09:00etatik 12:30etara. Bina maskara banatuko dira.

HERNANI UDALA

Dagoeneko hasi dira irekitzen herriko merkataria eta ostalari txikiak, Covid-19a gerarazteko konfinamendu egoera arintzeko neurriak hasi direla-eta. Horregatik, «saltokietan irekiera seguruagoa izaten laguntzeko», maskarak eta gel desinfektanteak banatuko dituela jakinarazi du Hernaniko Udalak.

Jasotzeko aukera, astelehenetik aurrera

Banaketa Berriak elkartearekin elkarlanean antolatuta du Udalak. Horrela, Hernaniko Mer-

katari eta Ostalarien Elkartek Andre Kaleko 30 zenbakian daukan egoitzara joan beharko da maskarak eta gela jasotzera.

Astelehenetik aurrera hasiko dira banaketan, eta astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 12:30ak arteko tartean jaso beharko da materiala.

Maskarak bi; ontziak, nork bereak

Azpimarratu dute establezimendu bakoitzeko, «gehienez ere bi maskara» banatuko direla. Gel desinfektantea jasotzeko, berriz, azaldu dute «bakotzak bere edukiontzia» eraman beharko duela, produktuarekin bete ahal izateko.

Banaketaekin astelehenetan hasiko direla jakinarazi bada ere, noiz arte egingo den ez da zehaztu. Izan ere, materiala dagoen bitartean banatuko da, bukatzen den arte. **K**



JASOTA
BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Pandemia osteko ekonomia

Juan Luis Arsuaga paleoantropologoaren hitzetan, «zientziak ez du konponduko arazoa, diagnostiko batetik abiatuko da, Planetaren unearen ikuspegi holistikotik batetik».

Bat nator honako hau esaten duenean: «irtenbide bakarra izango da gustatzen zaizkigunei uko egitea. Iritsi da garaia gizateria heldua izan dadin eta erabaki dezan zer gauza ez diren egin behar».

Kontsumoa, moda, publizitatea, ekoizpena, merkaturia eta BPG. *Hazkunde iraunkorraren* hiru pulsio eta horiek neurtzen dituzten beste hiru adierazle. Xehatuta, Covid-19ak agerian utzi duen kaosari eta defizitei ikusgarritasuna ematen laguntzen dute.

Kolapso ekologiko-ekonomikoari buruzko eztabaida saihes- tezinari buruzko eztabaidari

toki eman nahi ez dioten komunikabide handietan, zirrikituak behartu ditzake, baina... ba al dakigu zertarako?

Aberastasun kultural eta soziala hazkunde ekonomikoaren gainetik neurtzea ahalbidetuko duen BPG berri bat sortzea eskatzen du. Erresidentzia eta asistentziari dagokionez, inbertsio soziosanitarioa eskatzen du; bizitzari kalitatea gehitzea, eta ez gaur jasaten ari garen kolapso honetara ere bagaramatzen kostu irrazional baten trukean, bizi-urteak gehitzera.


«Covid-19a da azken abisua. Espeziearen kontzientzia kritikorik gabe, hurrengoan, gizateria kolapsatu egingo da». Hala eta guztiz ere, Eudald Carbonell paleoantropogoak, baikortasunez, zera pentsatu du: «ondorioak aterako ditugu hau berriro

gerta ez dakigun». Baina, hemen, ez nago ados.


Ez, baliozko ondorioz atera- tzen ez delako. Bai, ez dituztelako aintzat hartuko erabakiak hartze- ko eremuetan, ez dutelako izango beharrezko hedadura mediatikoa exijentzia eta mobilizazio sozia- la bultzatzeko, komunikabideak baitira gure kontzientziazio fal- taren oztopo nagusia, Trumpek dioen moduan: «zertarako nahi ditugu diktadurak, hedabideak badiugu?». Mende hasieran 50 bat berri agentzia zeuden, eta gaur egun, ezin hobeto sinkroni- zatutako ebakuntza-gela neolib- eral horretako lau fokuak baino ez dira geratzen... eguneroko al- bistearen titularra haien kobazu- loaren iluntasunean argizatzen dutenak.

Iulen Lizaso Aldalur

Labirintoa




Desberdintasunak



Sudokuak

1		6						
								5
		5		6	2		4	
	9	3	4	5		6		
7								2
							8	9
8		2						7
				1				
		4	5			2		



D		G	H			J		
H	I	J			F			E
	L		I	J				H
L	H		G	F	J	D		I
		F	D	H	I	L		
I			K	L		H	F	
E		H	F			I		D
J			E		H	G	L	
			J		D			K

D
E
F
G
H
I
J
K
L

Ariketa matematikoa

	/	1	-		= 1
+		x		+	
	-		+		= 9
-		/		-	
	+		/		= 1
=		=		=	
4		4		3	

EGURALDIA

GAUR

Goizean aterit eutsiko dio baina arratsaldean trumoi-ekaitzak, zaparradak eta kazkabarra espero dira leku askotan. Iparraldeko haizearekin hoztu egingo du.
Min.14° / Max.21°

BIHAR

Erabat aldatuko da eguraldia. Egun osoan lainotuta egongo da, oso, eta euria zarra-zarra egingo du. Haizea ere zakartu egingo da eta hoztu egingo du.
Min.13° / Max.16°

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) UDALTZAINGOA 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarra) DYA 943 464622 AUTOBUSAK Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ANBULATORIOA 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) 943 557738 Gauez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) 943 557738 Goizueta: Nagusia 64 948 514353

IRAGARKI MERKEAK

Lokal-garajea salgai, Arantzazu Plazan (udaletxe atzean). Bi kotxerentzako dauka tokia, eta zuzenean kalera joateko irteera. Sukaldea eta komuna ditu, eta 42m2. **Deitu: 699 492 235**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



EGILEA: Garbina Ubeda (Aizuri)
 TOKIKOMelo beste hedabideekin elkarlanean argitaratuko atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus
 web atarian eta denbora-pasa hauen solu-
 zioekin batera beste hainbat jolas aurkituko
 dituzu.

Orak irakurtzeko
 aplikazio batekin
 itakurti



Engainariak

Zati hauetatik erdiak goiko irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu bost onak eta bost txarrak.



UDALEKU IBILTARIAK

***OHARRA (COVID-19 DELA ETA):** Printzipioz, urtero bezala, Udalekuek ohi bezala antolatuko dira. Eta izen ematearekin batera, ordainketa ere egin beharko da. Hala ere, Udaleku ibiltariak bertan behera geratuz gero, dirua bere osotasunean itzuliko da, erabakia hartu bezain laster.

**DO
BE
RA**
 KUDARRA
 ELKARTIA



Udaleku Txikiak
 Urtazulak: 29-31 "Urdaiz" (2000-2019 urteetan jarraituko)
 Prezioa: 170€ / Baxildok: 140€

IZEN-EMATEA
 WEBGUNEAN
 IZANGO DA
www.dobera.eus

Informazio gehiago eskuratzeko:
www.dobera.eus
 Larrazmendi kalea 15, behea
 20120 Haran (Gipuzkoa)
 E-maila: dobera@dobera.eus
 Telefonoak: 943 33 27 95
 662 485 892

Udaleku Handiak
 Urtazulak: 13-24 "Urdaiz" (2020-2027 urteetan jarraituko)
 Prezioa: 250€ / Baxildok: 230€

Informazio gehiago eskuratzeko:
www.dobera.eus
 Larrazmendi kalea 15, behea
 20120 Haran (Gipuzkoa)
 E-maila: dobera@dobera.eus
 Telefonoak: 943 33 27 95
 662 485 892

Udaleku Handiak
 Urtazulak: 13-24 "Urdaiz" (2020-2027 urteetan jarraituko)
 Prezioa: 250€ / Baxildok: 230€

Tokiko hedabideak krisian: lana eta audientzia biderkatu, baina diru-sarrerak %72 behera

Tokikomek azaleratu du, erakundea osatzen duten tokiko hedabideen egoera; eta nabarmendu du, interneteko audientziak apirilean %97 gora egin duen arren, fakturazioa %72 jaitea aurreikusten dela: 2,5 milioi eurotik gorako galera aurreikusi du, abuztua bitartean.

URUMEA TOKIKOM

Jarduera ekonomiko guztietan bezala, krisia eragin du komunikazioaren sektorean ere, Koronabirusaren aurrean ezarritako osasun alarma egoerak. Ordutik, «inoiz baino biziago» dabil tokiko hedabideen sektorea, Tokikomek nabarmendu duenez, tokiko 25 hedabidek osatzen duten erakundek; tartean, Kronikak.

Tokikomek aditzera eman du, tokiko hedabideen «kontsumoa zein erredakzioen lan karga biderkatu» egin dela, herritarrek informazio bila jo dutelako, «eguneroko erabakiak hartu ahal izateko informazio praktikoa bila». Zentzu horretan, aditzera eman du sekulako igoera izan duela tokiko hedabideen audientziak: interneteko kontsumoa %97 hazi da apirilean, iazkoaren aldean, eta %62 osasun alarma egoera hasi zenetik. Baina horrekin kontrastean, tokikoen diru-sarrerak kolpe handia jaso dute ekonomikoki, inguruko jardueren ekonomikoa geldiarazi delako: %72 jaitsiko da fakturazioa, aurreikusi dutenez; eta kasu batzuetan, baita %80 ere. Guztira, 2,5 milioi eurotik gorako galera aurreikusi dute, abuztua bitartean.

«Konpromisoa eta ahalegina», informatzen jarraitzeko

Tokikomek nabarmendu du, «tinko eutsi» diotela toki komunikabideek «jarduerari eta gertuko komunitatearekiko konpromisoari. Egun konplikatu hauetan, ahalegina biderkatu dute bizilagunak zehatz eta puntual informatuta, eta entretenituta ere edukitzeko. Horixe delako haien bokazioa, noski, baia gainera legez ere behartuta egon direlako: alarma egoeran jardueren ekonomiko gehienak geldiarazi diren bitartean, komunikabideak zerbitzu esentzial gisa hartu dira hasieratik, eta beraz lanean jarraitzen ari dira», azaldu du.

Zentzu horretan dio, lanean jarraitzeko konpromisoak eta legezko betebeharrak horrek, «zailtasun teknikoak eta kostuak bi-

derkatu» egin dituela: «langileak, elkarrizketatuak eta erabiltzaileak babesteko neurri eta protokoloak, kalean kazetaritza zein banaketa lanak egiten ibiltzeko zailtasunak... Ezohiko egoera honetan informazioa jasotzen eta hedatzen jarraitzeko konpromisoak irudimen handia eta ahaletan fisiko eta ekonomiko erraldoia eskatzen ari da».


Tokikoen interneteko audientzia, %97 gora apirilean
Ahalegin horrek, bere fruitua eman du audientziari dagokionez, eta tokiko hedabideen sektorea «oso harro» dago lortutako emaitzekin eta publikoak emandako erantzunarekin. Izan ere, Tokikomeko toki komunikabideen interneteko kontsumoa %97 hazi da apirilean, 2019ko apirilekoarekin alderatuta.

'Kronika.eus' web orrian, %80 haunditu da erabiltzaile kopurua apirilean, eta %77 bisitak, iazko datuen aldean. Martxoan, %78 eta %92koa izan zen gorakada hori.

tuz. Eta osasun alarma egoera ezarri zenetik, %62koa izan da gorakada, iazko datuen aldean. «Ondo egindako lanaren adierazgarri argia da, zalantzarik gabe», adierazi du Tokikomek.

Kronikaren kasuan, %80 haunditu da *kronika.eus* webgunearen erabiltzaile kopurua apirilean, eta %77 areagotu dira webgunera bisitak, 2019ko apirilaren aldean. Datuak nabarmenagoak dira, gazteei dagokienez: %86,5 haunditu da erabiltzaile gazteen kopurua apirilean, iazkoaren aldean; eta ia %80 areagotu dira haien bisitak.

Emaitzak, oraindik ere hobeak izan ziren martxoan: %92 haunditu zen bisita kopurua, eta %78 erabiltzaile gehiago



izan ziren, 2019ko martxoaren aldean. Horretan ere, gazteen datuak dira harrigarriak: %126 haunditu zen erabiltzaile gazteen kopurua, eta %136 areagotu beraien bisitak, iazko martxoarekin alderatuta.

Zehazki, 22.700 erabiltzaile ezberdin izan ditu *kronika.eus* webguneari apirilean, eta 62.624 bisita jaso ditu. 2019ko hilabete berean, 12.588 izan ziren erabiltzaileak, eta 35.406, berriz, web orriak jasotako bisitak. Horrek esan nahi du, 10.112 herritar gehiago izan direla *kronika.eus* erabili dutenak, eta guztien artean, 21.218 bisita gehiago egin dituztela webgunera.

Aurtengo martxoari dagonionez, 21.439 izan dira bisitariak, eta 63.983 bisita egin dituzte webgunera. Joan den urteko martxoan, erabiltzaileak 12.033 izan ziren, eta bisitak 33.337.

2,5 milioi eurotik gorako galera, abuztua bitarte

Tokikomek dio, ez dela falta «harro eta pozik egoteko motiborik» toki komunikabideen sektorean; «baina egoera luzatu ahala, kezka areagotzen doa». Izan ere, ahalegin, kostu eta informazio eskaera gehigarri hau etorri da, toki komunikabideen diru-iturri propioen «inoiz ez bezalako murrizketarekin batera». Tokiko jardueren sozial, ekonomiko eta kulturala erabat geldituta, «egun batetik bestera desagertu dira komunikabideen publizitate eta zerbitzu salmentak», azaldu du Tokikomek.

Tokikomeko bazkide diren 25 hedabideen artean ikerketa

egin du, Kronika barne; eta horren arabera, martxotik abuztura %72 jaitsiko da toki komunikabideen fakturazioa, batez beste: «kasu askotan, %80a ere iritsiko da beherakada». Kopuru horiek «eurotara ekarrita», aurreikuspena da 2.532.720 euroko

«50 egun hauetan, diru-sarrerarik gabe, baina inoiz baino lan gehiagorekin aritu dira toki komunikabideak. Beste hainbat sektorek bezala, erakundeek eta gizarte osoaren babesa beharko dute».

diru-sarrerak galduko dituztela toki komunikabideek, abuztura bitartean, publizitatean eta bestelako komunikazio zerbitzuetan izandako murrizketen ondorioz. «Irailetik aurrera zer eta nola etorriko den ere ez dago jakiterik», aurreratu du Tokikomek, «baina ezin optimista izan».

«Berez oso oparoa ez den egoera normaleko lan karga eta kostuak biderkatu egin dira, eta diru-sarrerak, berriz, betikoen laurden bat izatera ere nekez iristen ari dira», azpimarratu du Tokikomek.

«Proiektu askoren biziraupena kolokan dago une honetan»
Datu horiek esku artean, sek-

toreak bizi duen egoera agerian utzi nahi izan du Tokikomek: «proiektu askoren biziraupena kolokan dago une honetan; 50 egun hauetan diru-sarrerarik gabe baina inoiz baino lan gehiagorekin aritu eta, are gehiago, legez ere zerbitzu esentzial gisa jo ondoren».

Horregatik dio, «beste hainbat sektorek bezala», toki komunikabideenak ere beharko duela «erakundeek eta gizarte osoaren babesa», datoen garaietan, «esentzialtasun hori garai txarretan eta hobexekoetan ere aitortzeko». Babes horri forma zehatza emateko ahaleginetan ari da Tokikom, erakundeekin «elkarlan estuan». Eta uste du, hainbat bidetatik etorri daitekeela babes hori: «publizitate instituzionala egiterakoan Google, Facebook eta Twitter bezalako multinazionalen gaintetik tokikoak lehenetsiz, publizitate kontratazioa hobari fiskalen bidez sustatuz, diru-laguntzen justifikazioetan malgu jokatuz...», azaldu du.

Gizarteari, berriz, honakoa eskatu diote: toki komunikabideak egiten ari diren lana «ondo gogoan» hartu dezala. «Egunotan toki komunikabideen bidez jakiten ari gara zein dendatan erosi dezakegun eta zeinetan ez, noraino iritsi gaitezkeen pasiatzen, gure Udalak zein zerbitzu dituen martxan eta zein ez, nola parte hartu herriko elkarte eta ekimenetan... Informazio eta zerbitzu garrantzitsua da hori, sarritan behar bezala baloratzen ez dena», nabarmendu du Tokikomek. **K**

«Abuztura bitartean 2,5 milioi euroko galera izatea aurreikusten dugu tokiko hedabideok»

Toki komunikabideen diru-iturri propioak «ia desagertu» egin direla azaldu du Jone Guenetxea Arrindak (Abadiño, 1978), Tokikom erakundeko presidente eta Durangaldeko Anboto astekariko zuzendari denak. Tokiko hedabideetan interneteko audientziak gorakada nabarmena izan duenean, «oso kezkatuta» azaldu da, ikuspuntu ekonomikotik: «herritarrak gero eta informazio gehiago kontsumitzen ari diren sasoi honetan, diru-iturri propioak inoiz baino gehiago murriztu zaizkigu».

URUMEA JONE GUENETXEA

Tokiko hedabideek kezka beziratzaren diote etorkizunari. Koronabirusaren krisiak sektore guztiak kolpatu ditu, eta hedabideena ez dela salbuespena izan dio Jone Guenetxea Arrindak. Euskerazko toki komunikabideak batzen dituen Tokikom erakundeko presidentea da Guenetxea, eta baita Durangaldeko Anboto astekariko zuzendaria ere.

Toki komunikabideek bizi duten egoeraren berri eman du: «diru-iturri propioak ia desagertu egin dira. Eta txanponaren beste aldean daude, toki komunikabideok egun hauetan lanean jarraitzeko egin dugun ahalegina, eta adudientzietan izan dugun igoera».

Kazetaritzaren ikuspuntutik, nola daramazue lana?

Gurea jarduera esentzial bat izanda, ez dugu etenaldirik izan. Gainera, informatzeko bokaziotik, inoiz baino tinkoago eutsi diogu produkzioari. Herritarrei informazio fidagarria zintzotasunez helarazteko konpromisoa berretsi dugu. Albiste faltsuak gero eta ugariagoak diren informazioaren mundu honetan, hedabideon lana oso beharrezkoa da. Herritarrek jakin nahi izan dute egunerokotasunean krisi honek nola eragiten dien, eta informazio hori eskuratzeko tokiko hedabideetara jo dutela uste dut.

Audientziek zenbat egin dute gora?

Webguneko audientzia nabarmen igo da Kronikan, baita gainerako tokiko hedabideetan ere. Kronikaren kasuan, aurtengo otsaileko datuekin konparatuz, apirilean audientzia %72 igo da webgunean, eta ia azko apirilekoekin alderatuz, %77. Krisiaren hasieran gaitzak gogorren jo zuen eremuetan egin zuen audientziak gora. Alearen (Araba) eta Geuriaren (Basauri) adibideak hortxe ditugu. Orokorrean, euskal hedabide guztion kontsumoak gora egin du interneten. Tokikoon kasuan, Tokikomeko hedabide guztion trafikoa batuta %97ko igoera izan dugu,

iazko sasoi honetako datuekin alderatuz. Hau da, bisitak bikoiztu egin dira. Krisi aurreko audientziekin alderatuz, berriz, %60tik gora hazi da audientzia. Datu horiek ondo egindako lanaren adierazgarri dira. Tokikook argi erakutsi dugu funtzio sozial garrantzitsua betetzen dugula, gure komunitateari informazio fidagarria helaraziz. Nik neuk ere euskal hedabideon informazioa inoiz baino gehiago kontsumitu dut, eta irakurle bezala, aitortu behar dut eduki benetan interesgarriak ikusi ditudala. Alde horretatik, pozik egon gaitezkeela uste dut.

Ikuspuntu ekonomikotik, krisiak nola eragin du tokiko hedabideetan?

Oso kezkatuta gaude. Krisi honek sektore guztiak kolpatu ditu, eta gurea ez da salbuespena izan. Herritarrak gero eta informazio gehiago kontsumitzen ari diren sasoi honetan, diru-iturri propioak inoiz baino gehiago murriztu zaizkigu. Publizitatean kolpe haundia jaso dugu. Kontuan izan, publizitate aldetik, tokiko hedabideok tokiko komertzioarekin lotura estua dugula. Publizitate eta zerbitzu salmentak minimoetara jaitsi dira, egun batetik bestera. Tokikomeko bazkide garen 25 entitateok, aurreikuspen bateratu bat egin dugu. Ikerketa horren arabera, tokiko komunikabideon fakturazioa %72 murriztu da. Kasu batzuetan %80ra ere iritsi da. Toki komunikabideok abuztura bitartean 2,5 milioi euroko galera izango dugula aurreikusten dugu. Irailetik aurrera ez dakigu zer gertatuko den, baina ez gara oso baikorrak. Hala ere, beste egoera zail batzuk gainditu ditugun moduan, honi ere elkarlanean egingo diogu aurre.

Diru-laguntzetan jaitsierarik izango duzue?

Ez dugu jaitsierarik espero. Hala ere, udalen batek izan dezake tentazioaren bat, beraien diru iturriak ere murriztuko direlako. Baina inoiz baino gehiago da politika egiteko momentua, eta inork ez du zalantzarik tokiko hedabideen esentzialtasunaz. Institutuzio batzuek adierazi di-



Jone Guenetxea Arrinda, Tokikomeko presidentea eta Anboto astekariko zuzendaria.

«Herritarrek jakin nahi izan dute egunerokotasunean krisi honek nola eragiten dien, eta informazio hori eskuratzeko, tokiko hedabideetara jo dutela uste dut»

gute laguntzei eusteko borondatea; adibidez, Aldundiek eta Jaurlaritzak. Zenbait kasutan

«Diru-laguntzetan ez dugu jaitsierarik espero. Inoiz baino gehiago da politika egiteko momentua, eta inork ez du zalantzarik tokiko hedabideen esentzialtasunaz»

hiru urterako sinatuta daude laguntza horiek. Ez dugu murrizketarik espero, ez gendake uler-

tuko. Badakigu instituzioentzat ere sasoi zaila dela. Hala ere, azken urteotan egonkortzera bidean eman ditugun pausoak kontuan izanda, espero dugu laguntza horiei eustea. Gure diru-sarrerak bi hanka dituzte: sarrera propioena (batez ere publizitatea), eta diru-laguntzak. Sarrera propioak minimoetan egonda, instituzioek badakite diru-laguntzei eustea dagokiela. Tokikomeko hedabideek kontatzen dute erakunde publiko guztien laguntzarekin, eta laguntza guztiei eutsita ere, erabaki drastikoak hartzera derrigortuta egongo dira, hainbat euskal hedabide. **K**



Denda eta tabernak zabaldu edota 10 laguneko taldeak elkartzeko aukera, astelehenetik aurrera

Espainiako Gobernuak baimenduz gero, deseskalatzearen lehenengo fasea jarriko da martxan etzi, eta beste hainbat ekintzatarako aukera izango da orduan. Hala eskatu dute Eusko Jurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak.

URUMEA DESESKALATZEA

Osasun alarma egoerak indarrean jarraituko du, gutxienez, maiatzaren 24ra arte, hala onartu baitzuen Diputatuen Kongresuak, asteazkeneko bilkuran. Baina izango dira aldaketak, datozen bi asteotan ere. Joan den astelehenean 0 faseari ekin ondoren, hurrengo ere hastear da, Espainiako Gobernuak diseinatutako deseskalatze prozesuan. Aurrerantzean, autonomia erkidego bakoitzeko egoeraren arabera, erabakiko da faseetan aurrera egin ala ez.

Hori horrela, Eusko Jurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak eskaera egin diote Espainiako Gobernuari, bi lurraldeetan aurreneko fasea has dadin etzi. Gobernuak onartuz gero, beste hainbat ekintza egongo dira baimenduta, bai jarduera ekonomikoei dagokienez, eta baita ekintza pertsonaletan ere.

10 pertsona elkartzeko aukera, etxean zein kalean

Astelehenetik aurrera, osasun alarma egoera ezarri zenetik aurreneko, taldean elkartzeko aukera izango da, 10 lagunekoak gehienez, etxean zein kalean. Hori bai, bi metroko segurtasun tarteak utzi beharko dira, eta higiegi neurriak errespetatu.

Ibilgailuetan, elkarrekin joateko aukera

Aukera izango da, era berean, ibilgailuetan elkarrekin joateko. Etxe berean bizi diren kasuan, elkarrekin joan ahal izango dute, neurri berezirik gabe, eta 9 laguneko mugarekin.

Aldiz, elkarrekin bizi ez diren kasuan, izango dute aukera ibilgailu berean joateko, baina mugatuta egongo da joan daitezkeen pertsonen kopurua; eta gainera, pertsona guztiek jantzi beharko dute maskarilla edo antzeko babes elementuren bat.

Komertzio txikiak zabalik, segurtasun neurriekin

Elikagaienak ez diren komertzioek izango dute aldaketa garrantzitsua, datorren astelehenetik. Izan ere, denden ateak zabaldu ahal izango dituzte komertzio txikiek, 400 metro karratu baino gutxiago badiutuzte, aldezturik hitzordurik eskatu beharrik izan gabe. Horretarako, segurtasun neurriak bete beharko dituzte: %30ekoa izango da aforoa gehienez, eta bi metroko tarteak errespetatu beharko da, bezero guztien artean. Tarterik mantentzea posible ez denean, bezero bakarra egon ahal izango da barruan. Gainera, ordutegi jakin bat ezarri beharko dute, non lehentasuna emango zaien 65 urtetik gorako bezeroei. Lokala desinfektatu ere egin beharko dute, egunean bi aldiz.

Feriak berriro, udalek baimenduz gero

Dendak bezala, martxan jarri daitezke aire libreko feria eta merkatuak ere, baldin eta herriko Udalak baimena ematen badu horretarako. Hori bai, hasiera batean, %25era mugatu dute postu kopurua, normalean izaten den kopuruarekiko; edo bestela, feriaren eremua haunditzea eskatu dute. Izan ere, pos-

tuen arteko distantzia eta bezeroen arteko segurtasun tarteak errespetatu beharko da.

Taberna eta jatetxeen terrazak, %50eko aforoarekin

Aste honetan dagoeneko izan dute aukera, jatetxe eta taberne, enkarguz etxera eramateko janari eta edariak prestatzeko. Baina aurreneko fasean, terrazak ere ireki ahal izango dituzte, %50eko aforoarekin: taberna edo jatetxe barruko terrazak, zein espazio publikoan daudenak, betiere aire librean badaude. Udalak espazio publiko gehiago erabiltzea baimenduz gero, mahai gehiago jarri ditzakete, betiere espazio horren aforoaren %50a erabiliz.

Gehienez ere 10 laguneko taldeak elkartzu ahal izango dira, eta taldeen artean, bi metroko tarteak utzi gutxienez. Gainera, bezero batzuek alde egitean, eta hurrengoak sartu aurretik, mahaiak desinfektatuko dituzte.

Hiletetan, senide gehiago

Hiletei dagokienez ere izango da aldaketarik. Datorren astetik, haunditu egingo da hiletetan egon daitezkeen senideen kopurua. 15 lagun izango dira gehienez, aire librean egiten bada; edo 10 lagun gehienez, espazio itxietan eginez gero. Era berean, 15 lagunera mugatuko da hildakoa lurperatzeko komitiba, edo errausketaren aurreko agurra.

Gurtza lekuak ere, zabalik

Astelehenetik zabaldu daitezke, baita ere, kultu edo gurtza leku erlijiosoak: elizak, meskitak, santutegiak... Hori bai, afororen heren bat bakarrik bete ahal izango da aldi berean.

Ekitaldi kulturalak, 200 lagun baino gutxiagorekin

Kultur ekitaldiak egiteko aukera ere jaso du Espainiako Gobernuak, aurreneko fasean. Aire



Denda txikiak ireki ahal izango dira, baina segurtasun tarteak gorde beharko da.

librean egin beharko dira, eta 200 lagun baino gutxiago elkartzu ahal izango dira, eserita eta beharrezko distantzia mantenduz elkarren artean. Leku itxietan ere izango da kultur ekitaldiak egiteko aukera, baina

kasu horretan, 30 lagun baino gutxiago egon daitezke.

Era berean, liburutegiei ere zabaldu ditzakete ateak, liburuak maileguan hartzeko, edota bertan irakurtzeko, baina aforo mugatuarekin. **K**

biokbi optika

Alejandra Alcibar
Optiko Optometrista 12.244 zenbakia

Antziola 14
Telf: 943 33 68 86

**GURE MERKATARITZA-JARDUERARI EHINGO
DIOGU MAIATZAREN 11N, ASTELEHENA,
COVID-19REN AURKAKO
SEGURTASUN-NEURRI GUZTIEKIN**

Segurtasun handiagoa izateko, gure bezeroei eskatzen diegu aldezturik hitzordua hartzeko.

Optikara joan behar baduzu graduazioa eguneratzeko, lentillak egokitzeko edo begietan nabaritzen duzun beste edozein eragozpen begiratzeko, maskarilla erabiltzea gomendatzen dugu. Azterketa egin ondoren, tresna guztiak desinfektatuko ditugu.

Establezimenduaren barruan, OMEk gomendatutako arauak beteko ditugu: segurtasun-distantzia, eskuak garbitzea, eta eskularru, maskara eta gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta, ahal bada, txartelarekin ordaintzeko.

Agur bero bat. Espero dugu laster normaltasunera itzultzea.